

ZIRKULAZIOKO UDAL ORDENANTZA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Eskumena

Ordenantza hau hurrengoetan ezarritakoa dela bide eman da: Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko indarrean dagoen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubideko indarreko xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretua, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea onesten duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretua —abenduaren 19ko 19/2001 Legeak egindako eraldaketaren ondoren bateratua—, eta Trafikoari buruzko Legearen testu artikuluduna aplikatu eta garatzeko Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra onesten duen azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretua.

Modu subsidiarioan, ordenantzak beren beregi arautzen ez dituen arloetan edo ordenantza oinarri hartuta udal-agintaritzak arautzen dituenetan, Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikuluduna, hori garatzen duten erregelamenduak eta azaroaren 23ko 18/2009 Legea, aipatu testu artikuluduna eraldatzekoa, aplikatuko dira.

2. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da herri barruko bide publikoen eta erabilera publikoa duten bide pribatuen erabilera, antolamendua, zainketa, trafikoa kontrolatzea, arau-hausteak salatu eta zehatzea, eta ibilgailuak ibilgetzeko, kentzeko eta ondoren gordailutzeko kautela-neurriak hartzea.

3. artikulua. Aplikazio-eremua

Ordenantza honetara bildutako manuak Galdakao udalerrian aplikatzeko modukoak dira, edozeinek erabiltzeko bide guztietan, publikoak zein pribatuak izan, mota guztietako ibilgailuak gelditu eta aparkatzeko guneetan, zeharbideetan, plazetan, kale edo herri barruko bideetan eta jabari publikoko bideetan, eta hurrengo hauek ukituko dituzte:

- 3.1. Lehenengo lerrokadan aipatu bideak erabiltzen dituzten erabiltzaileak.
- 3.2. Pertsona fisiko eta juridiko guztiak, aurreko paragrafoan aipatu ez arren, manu horiek ukitzen baldin badituzte.
- 3.3. Bide publikoko zirkulazio askean eragina duten obren kontratistak edo erakunde eta partikularrak.
- 3.4. Lehenengo lerrokadan aipatu bideetako trafikoan murgilduta dauden mota guztietako ibilgailuak, aparkatuta zein mugitzen egon.
- 3.5. Animaliak, aske zein taldean egon.

Aipatu manuak ez dira aplikatuko herri erabilera bakoak izan ez eta jabeen edo horien mendekoen erabilera eskusibokoak diren bide, lursail, garaje, kotxetegi edo antzeko izaerako beste lokal batzuetan.

ATARIKO TITULUA TRAFIKOAREN ETA ZIRKULAZIOAREN ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA UDAL ESKUMENA

4. artikulua

Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legeak eskumen hauek ematen dizkie udalerriei:

4.1. Udalerriarren titulartasunpeko herri barruko bideetan trafikoa antolatu eta kontrolatzea, bide horiek agenteen bidez zaintzea, bide horietan egiten diren arau-hausteak salatzea eta arau-hauste horiek zehatzea eskumen hori beste Administrazio batek beren beregi eratzikita ez badu.

4.2. Izaera orokorreko xedapen baten bidez herri barruko bideen erabilera arautzea. Ibilgailuen trafikoaren beharrezko joan-etorria eta kaleen oinezko erabilera bateragarri egingo dira, eta aparkaldi mugatua arautuko da, udalerriko inguru desberdinetan ibilgailuak aparkatzeko gehiengo denborak zehaztuko dira, aparkalekuak erabiltzaile guztien artean bidezko moduan banatzen direla bermatzeko. Leku horietan, ibilgailuen gidariak, autoaren aurreko beiraren barruko aldean, kanpotik ondo ikusteko moduan, kasuan kasuko egiaztagiria jarriko dute. Egiaztagiri horren prezioa TAO arautzen duen kasuan kasuko udal-ordenantzaren finkatuko da.

4.3. Udaltzaingoak ibilgailu bat bide publikotik kentzea eta udal gordailura eramatea agindu dezake, ibilgailu hori udal agintaritzak ordutegi mugatuko aparkaleku gisa egokitutako tokietan aparkaturik dagoenean, baimentzen duen bereizgarria jarri gabe, edo Udal Ordenantzaren ezarritakoaren arabera ordaindutako denboraren hirukoitza gainditzen denean.

Herri barruko bideetatik ibilgailuak kentzea eta ondoren gordailutzea, arriskutsua denean, ibilgailu edo oinezkoen zirkulazioan nahasmendu larria sortarazten dutenean edo zerbitzu nahi ondare publikoren bat hondatzen ari direnean.. Era berean, herriz kanpoko bideetatik ibilgailuak kentzea eta ondoren gordailutzea, Motordun Ibilgailuen Trafikoa, Zirkulazioa eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Artikuludun Testua onesten duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuan araututako kasu eta baldintzetan.

4.4. Kirol-jarduerak baimentzea oso-osorik herri barrutik egiten direnean, zeharkaleak alde batera utzita.

4.5. Aipatu bideetatik zirkulatzen duten gidarien baldintzak zehazteko arauetan ezarri kontrolak egitea.

4.6. Herri barruko bideak behar denean ixtea.

II. KAPITULUA PRINTZPIO OROKORRAK

5. artikulua

Galdakaoko Udalak trafikoa antolatzeke egokitzat dituen neurriak har ditzake, zirkulatzeko, aparkatzeko edo bideak erabiltzeko baldintzak aldatuta.

6. artikulua

Bide publikoan konponketak egin, seinaleak ipini, mantentze-lanak egin edo garbiketak egin behar badira, inguru horietan seinaleak ipini eta ukitutako erabiltzaileei gutxienez 24 ordu lehenago jakinarazi beharko zaie, salbu eta kasuak presakoak direnean.

7. artikulua

Udaleko Zerbitzu Teknikoak lankidetzan estuan arituko dira Udaltzaingo Sailarekin, bide publikoak ukitu eta erabiltzaileentzat nahasmenak eragin ditzaketen obren kasuan informazioa emateko eta zein erabaki hartu behar diren zehazteko.

8. artikulua

Udaltzaingoak udalerriko ingururen batean zirkulazioaren antolamendua aldi baterako alda dezake, eta horretarako, zirkulazioaren segurtasunari eta joan-etorriari eusteko beharrezko neurriak hartuko ditu.

9. artikulua

Udaltzainen edo trafikoa antolatzearen gaineko ardura duten laguntzaileen adierazpenek lehentasuna izango dute egon dauden seinaleen aurretik, eta berehala jaramon egin behar zaie.

I. TITULUA HERRI BARRUKO ZIRKULAZIOA

I. KAPITULUA

I. ATALA JOKABIDE ARAUAK

10. artikulua

Bide publikoen erabiltzaileek ez dute zirkulazioa modu bidegabean oztopatu behar eta pertsoneri ez diete arriskurik, kalterik edo trabarik eragin behar, ezta ondasunei kalterik egin ere.

11. artikulua

Bidean ezin dira objektuak bota, jarri edo utzi, betiere, zirkulazio askea, geldialdia edo aparkatzea eragotzi edo arriskutsu egiten badute, bidea edo bertako instalazioak hondatzen badituzte edo bidean edo inguruetan zirkulatzeko, gelditzeko edo aparkatzeko baldintza egokiak aldatzen dituzten ondoreak eragiten badituzte.

12. artikulua

Bide publikoen erabiltzaileek zirkulazioa arautzen duten seinaleetan edo bide publikoko beste osagai batzuetan kalteak eragiten badituzte, udal-agintaritzari jakinarazi beharko diote ahalik lasterren.

13. artikulua

Ez dute zirkulatzeko baimenik izango obratatik etorri eta gurpiletatik eta/edo zamatik lur edo hauts ugari bota dezaketen ibilgailuek.

14. artikulua

Ibilgailuetan publizitate-xedeetarako bozgorailuak erabiltzea debekatuta dago, salbu eta baimena aurretik eskatu eta udal-agintaritzak baimen hori ematen duenean.

15. artikulua

Herri barruan debekatuta dago ibilgailuen seinale akustikoak erabiltzea, salbu eta inor harrapatzeko arriskua edo talka-arriskua dagoenean, larrialdi-zerbitzu publikoak direnean (polizia, suhiltzaileak, anbulantziak, etab.), edo pertsonak artatzen ari diren ibilgailu pribatuak direnean.

16. artikulua

Beren beregi debekatuta dago lehentasunezkoak ez diren ibilgailuekin justifikatu gabeko larrialdi-seinaleak erabiliz zirkulatzea.

17. artikulua

Ibilgailuek ezin izango dute gehiegizko zaratarik ez kerik sortu modu bortitzean azeleratzeagatik, ihes-hodiak aldatuta edo hondatuta izateagatik edo bestelako inguruabar bereziengatik. Guztiz debekatuta dago udalerrriaren barruko bideetatik ke-hodi libre izenekoa duten ibilgailuekin zirkulatzea.

18. artikulua

1. Guztiz debekatuta dago gidatzean soinuak hartu edo entzunarazteko aparatuetara konektatuta dauden aurikularrak erabiltzea.

2. Era berean, debekatuta dago gidatzean telefono mugikorreko gailuak edo bestelako komunikabide-sistemak erabiltzea, salbu eta komunikazioa eskuak eta aurikularrak edo antzeko tresnak erabili gabe egiten denean.

19. artikulua

Udalerrian jarduten duten gidari-eskoletako titularrei jarduera hori kasuan-kasuan zehaztuko diren inguru, ordutegi eta egunetan egiteko eskatu ahal izango zaie.

II. ATALA GIDARIAK

20. artikulua

Ibilgailuen gidariak, gidatzen ari direla, Ordenantza honetan ezarritako arauetara egokitu beharko dira eta, halakorik egon ezean, Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea eta horrekin bat datozen erregelamendura eta arautegira.

21. artikulua

Gidariak ibilgailuekin ez dira sartuko bidegurutzetan, elkarguneetan eta bereziki garraio kolektiboko ibilgailuentzat erreserbatutako erreietan, geldi geratuko direla aurreikusten badute eta modu horretan ibilgailuen edo oinezkoen zeharkako joan-etorria oztopatzen badute.

22. artikulua

Ordenantza honek araututako bideetan, abiaduraren gehieneko muga **50 km/h** izango da, baina udal agintariak, bide jakin batzuetan, inguruabarrak kontuan hartuta, muga txikiagoak edo handiagoak ezarri ahal izango dituzte, betiere, kasuan kasuko seinale bertikalen eta horizontalen bidez araututa.

Merkatugai arrakutsuak daramatzaten ibilgailuen eta ziklomotorren kasuan, muga 40 km/h izango da.

Oinezkoen inguruetan, baimenduta dagoenean, eta espaloirik gabeko galtzadetan eta oinezko asko dagoen lekuetan, bereziki ikastetxeen inguruetan, ibilgailuek oinezkoen ibilera arruntera murriztuko dute abiadura, eta gelditu ere egingo dira, eta beharrezko arreta-neurriak hartuko dituzte istripuak saihesteko.

23. artikulua

Gidariak oinezkoen istripuak eta eragozpenak saihesteko behar besteko arreta izango dute, zoladura gaizki baldin badago, galtzada estutzen bada, obrak badaude, egoera meteorologikoa kaskarra bada, etab.

III. ATALA OINEZKOAK

24. artikulua

Oinezkoak espaloietatik eta oinezkoen pasabide eta nasetatik ibiliko dira. Salbuespen moduan, galtzadatik ibili ahal izango dira, betiere, behar besteko arreta badute eta zirkulaziorako arrisku edo asalduririk eragiten ez badute, hurrengo kasu hauetan:

24.1. Aldean objektu handiak badaramatzate, eta espaloitik joanez gero, gainerako oinezkoentzat eragozpenak eragingo balituzte.

24.2. Motorrik ez duen neurri txikiko ibilgailua badaramate.

24.3. Baimendutako segizio edo manifestazioa osatzen duten oinezkoen taldeak badira.

24.4. Gorpil-aulkietan mugitzen diren elbarriak badira.

Oinezkoak ibiltzeko lekurik ez dagoenean, galtzadatik ibili ahal izango dira, baina erditik ahal beste urrunduta.

25. artikulua

Oinezkoak espaloietatik ibiliko dira, baina beste oinezko bazuen joan-etorria oztopatu edo zaildu gabe. Betiere, gurpil-aulkietan mugitzen diren elbarriek lehentasuna izango dute.

Galtzada gurutzatzeko, oinezkoen pasabideak erabiliko dituzte, eta halakorik ez dagoenean, etxe-uharteen muturretatik gurutzatuko dute, galtzadarekiko modu perpendikularrean. Hala ere, alde zuzenetik ibilgailurik ez datorrela egiaztatu beharko dute.

26. artikulua

Galtzadatik eta espaloietatik ezin da patinekin, monopatinekin edo antzeko kategoriako tresnekin ibili. Horrelakoak erabiltzeko, Udalak beren beregi jarritako lekuetara joan behar da. Leku horietara iritsi arte, tresnak eskuetan eramango dira, eta inola ere ez dira lurretik irristatuko.

IV. ATALA ANIMALIAK

27. artikulua

Ordenantza honetan aipatutako bideetan ezin dira ibili lor-abereak, abere zamariak, zelako animaliak, edo abelburuak bakarka edo taldeka. Era berean, debekatuta dago animaliek tiratutako ibilgailuen zirkulazioa. Udal-agintaritzak horiei inguru jakin batzuetatik ibiltzeko baimena eman ahal izango die, gainerako erabiltzaileentzat arriskurik ez badago, eta horiek parte hartzeko ospakizunak ere antolatuko ditu.

28. artikulua

Bide publikoan txakurren bat aske badabil eta jabeari lotuta eramateko eskatu ezin bazaio jabea aurrean ez dagoelako, txakurrak lepokoan identifikazioa izan zein ez, udal-sailari edo lan horiek egiten dituen enpresari esku hartzeko eskatuko zaio animaliak bide publikotik kendu eta gordetegira eramateko. Zerbitzu horren kostua animalia jabearen jabeari edo edukitzaileari eskatu ahal izango zaio.

II. KAPITULUA SEINALEAK

29. artikulua

Udal titulartasunpeko herri barruko bideetan seinaleak ipintzea zirkulazio arloko eskumena duen udal-agintariari dagokio modu eskusiboan. Agintari horrek, kasuan-kasuan, seinaleak ipintzeko, kentzeko edo ordeztzeko agindua emango du.

30. artikulua

Bide publikoan ezin da inolako seinalerik ipini Udalaren baimenik gabe. Baimen horretan, ipini beharreko seinalearen kokapena, eredia eta neurriak adieraziko dira.

31. artikulua

Seinalearen euste-mastari lotutako panel osagarriko inskripzioak euskararen erabilera arautzeko udal-ordenantzan ezarritakoaren arabera idatziko dira.

32. artikulua

Debekatuta dago semaforoaren eta trafiko-seinale bertikalen gainean edo ondoan zuhaitzak, landareak, markesinak, instalazioak eta edozein motatako publizitatea ipintzea, betiere, erabiltzaileei ikusmena eragotzi edo mugatzen badiete edo horien arreata galarazten badute.

33. artikulua

Udalak, ofizioz, behar besteko baimenik ez duten seinaleak edo indarreko arauak betetzen ez dituztenak berehala kenduko ditu, bai seinaleak araukoak ez direnean, bai seinalearen forma, kokapena edo diseinua okerrak direnean.

34. artikulua

Seinalea kentzeak sortutako gastuak eta bide publikoan eragindako kalteak seinalea jarri duenak edo seinale horren bidez onurak lortu dituztenek ordainduko dituzte, eta, gainera, kasuan kasuko zehapenak ezarri ahal izango dira.

III. KAPITULUA GELDIALDIA ETA APARKATZEA

I. ATALA GELDIALDIA

35. artikulua

Geldialdia pertsonak hartu edo uzteko eta gauzak kargatu eta deskargatzeko ibilgailua ibilgetzea da, bi minutu baino gutxiago irauten badu, eta gidariak ibilgailua utzi gabe. Salbuespen moduan ibilgailua uzten badu, ibilgailutik hurbil egon beharko du, eskatzen zaionean edo inguruabarrak direla-eta nahitaez kendu behar duenean.

36. artikulua

Geldialdia debekatuta ez badago, inguru eta bide publikoetan zirkulazioari kalte gutxien egiten zaion lekuan egingo da geldialdia.

Espalorik gabe kale urbanizatuetan, geldialdia egiteko, fatxadarik hurbilenetik metro bateko gutxiengo distantzia utziko da, eta zirkulaziorako erreia libre utziko da.

37. artikulua

Geldialdia egitean, ibilgailuak ez du **zirkulazioa** oztopatu behar, eta bideko gainerako erabiltzaileentzat ez du arriskurik eragin behar; beraz, ibilgailua arreta osoz utzi behar da. Edonola ere, geldialdia egitean, ibilgailua eskuineko espalora hurbildu behar da, martxaren noranzkoari erreparatuz; baina **zirkulazioaren** noranzko bakarra duten bideetan, ibilgailua ezkerreara ere hurbildu ahal izango da. Bidaiariak espalora dagoen aldetik jaitsi beharko dira. Gidaria jaitsi behar bada, beste aldetik jaitsi ahal izango da, betiere, inolako arriskurik ez dagoela egiaztatu badu.

38. artikulua

Udalerriko autobus-geralekuak horretarako udal-baimena duten autobusek erabili ahal izango dituzte soil-soilik.

39. artikulua

Presako kasuetan geldialdia bigarren ilaran egin behar denean, zirkulazioari oztopo egiten ez zaion lekuetan egingo da, eta gidaria ez da ibilgailutik aterako.

40. artikulua

Autotaxiak horretarako erreserbatutako lekuetan geldituko dira, ezarritako moduan. Leku horiek Galdakaoko Udalak zehaztuko ditu zerbitzu horretarako emandako lizentzietan. Beste kasu guztietan, Ordenantza honetako geldialdien araubidea aplikatu behar da.

41. artikulua

Kasu eta leku hauetan gelditzea debekatuta dago:

- a. Arauz debekatuta dagoen lekuetan edo debeku-diskoak edo -seinaleak dituzten lekuetan, salbu eta larrialdi- edo segurtasun-zerbitzuak direnean eta izaera horretako zerbitzuak egiten daudenean, edo pertsona gaixo edo tratatuak hartu edo uzteko denean.
- b. Bihurguneetan eta ikuspen urriko sestra-aldaketetan eta horien inguruetan, zubietan, gaineko pasabideetan, azpiko pasabideetan, tuneletan eta Tunel seinalea duten bideguneetan.
- c. Trenbide-pasabideetan, txirrindularien pasabideetan eta oinezkoen pasabideetan.
- d. Erabiltzaile jakin batzuen zirkulaziorako edo zerbitzurako modu eskusiboan erreserbatutako erreietan edo bideen aldeetan.
- e. Elkarguneetan edo horien inguruetan beste ibilgailu batzuek bira egitea oztopatzen bada, edo ikuspen urria egoteagatik arriskua sortzen bada.
- f. Erabiltzaileei seinaleak ikustea eragozten zaien lekuetan edo horren eraginez maniobrak egin behar badira.
- g. Ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioan oztopo edo asaldu larria eragiten denean, geldialdia bi minutukoa baino laburragoa izan arren.
- h. Martxaren aurkako noranzkoaren galtzada zatian.
- i. Babesguneen, irlatxoen, erdibitzaileen, babes-guneen eta trafikoa bideratzeko gaineko osagaien gainean.
- j. Lorategien, parterreen eta antzekoen gainean.

II. ATALA APARKATZEA

42. artikulua

Aparkatzea ibilgailua bi minutuz baino gehiagoz ibilgetzea da, betiere, zirkulazioko aginduengatik edo legezko edo arauzko betekizunengatik eragindakoa ez bada.

43. artikulua

Ibilgailua aparkatzean, zirkulazioan ez da inolako oztoporik eragin behar eta bideko gainerako erabiltzaileentzat ez da arriskurik sortu behar. Ibilgailua arretaz utzi behar da eta gidaria ez dagoenean berori abian jarri ahal izatea saihestu behar da. Horretarako, gidariak behar besteko arreta izan beharko dute, eta ibilgailua berehala abian jartzeagatik lekuz aldatu delako edo hirugarrenek —indarkeria edo ageriko indarra dagoenean izan ezik— egindako egintzen ondorioz sor daitezkeen arau-hausteen erantzuleak gidariak eurak izango dira.

44. artikulua

Ibilgailuak ilaran aparkatu behar dira, aurkako seinalerik ez badago, zoladuran adierazitako perimetroaren barruan eta espaloitik ahalik hurbilen. Espaloia ertza eta ibilgailuko gurgilen kanpoko aldearen artean 20 zentimetro utzi behar dira gutxienez, galtzadaren zati hori garbitu ahal izateko. Modu berean, zirkulazioaren erreia libre utziko da. Espaloirik gabeko kaleetan, 36. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

45. artikulua

1. Bide publikoetan ezin dira atoiak eta karabanak utzi ibilgailu traktorik gabe. Era berean, ezin dira utzi autobusak, traktoreak edo 3.500 kilogramo baino BGM handiagoa duten ibilgailuak, beren beregi baimendutako moduan, lekuetan eta aldietan izan ezik.
2. Ibilgailu traktorea duten karabanek ezin dute egon bi egunetan jarraian baino gehiagotan leku berean aparkatuta. Autokarabanek aparkatu ahal izango dute, ezbadaze egokitzeko, alojatzeko, gaua egiteko edo bertan kanpatzeko ez bada.

46. artikulua

1. Zirkulaziorako bi noranzko dituzten bideetan, aparkatzea debekatuta ez dagoenean, martxaren noranzkoaren eskuineko aldean aparkatuko da eta, edonola ere, bidean egon dagoen seinaleekin bat etorritik.
2. Zirkulaziorako noranzko bakarra duten bideetan, modu berean aparkatuko da, eta ezkerrean ere aparkatu ahal izango da soil-soilik bidearen zabalerrari esker inolako oztoporik eragiten ez denean.

47. artikulua

Udalak, Ordenantza bidez, ordutegi mugatuko aparkatze-neurriak ezarri ahal izango ditu, aparkalekuen txandakatzea bermatzeko.

48. artikulua

Udal-agintariek, zama lanak egiteko, aparkalekuen erreserbak ezarri eta seinaleen bidez adierazi ahal izango dituzte.

49. artikulua

1. Debekatuta dago kasu eta leku hauetan aparkatzea:

- a. Kasuan kasuko seinaleek debekatzen dutenean.
 - b. Gelditzea debekatuta dagoen leku guztietan.
 - c. Merkatugaiak kargatzeko eta deskargatzeko erreserba-seinalea duten lekuetan, jardueraren ordutegiaren barruan.
 - d. Elbarriek modu eskusiboan erabiltzeko seinalea duten inguruetan.
 - e. Oinezkoen pasabideetan.
 - f. Espaloietan, pasealekuetan eta oinezkoak igarotzeko gainerako lekuetan.
 - g. Sarrera-erreserbako lizentzia duten pasabideetan, lizentzia horrek adierazitako ordutegiaren barruan.
 - h. Bigarren ilaran, nahiz eta lehenengo ilaran oztopo bat edo babes-osagai bat egon.
 - i. Gelditzeko eta aparkatzeko inguruetan, garraio publikoaren erabilera eskusibokoak direnean.
 - j. Arauz aparkatuta dauden beste ibilgailu batzuen irteera oztopatzen denean.
 - k. Garbiketako Udal Zerbitzuarik edukiontzia biltzea eragotzi edo oztopatzen zaion lekuetan.
 - l. Larrialdi- eta polizia-zerbitzuen ibilgailuentzat erreserbatutako inguruetan.
 - m. "Aparkaleku erreserbatua" seinalea behar den moduan ipinita duten inguruetan, kasuan kasuko seinalean adierazitako ibilgailuek soilik aparkatu ahal izango dute.
 - n. Bertan behera utzita egotearen itxura duen ibilgailua.
 - ñ. Ibilgailuak leku berean ondoz ondoko 7 egun baino gehiago egin baditu. Kasu horretan, astegunak soilik zenbatuko dira.
2. Larunbatetan ezin da aparkatu asteko azoka egiten den inguruan, goizeko 6:00etatik arratsaldeko 16:00etara.
 3. Artikulu honetan ezarritako arauak gorabehera, kasuan-kasuan seinale bereziak ezarri ahal izango dira.

50. artikulua

- 1.- Bizikletak eta ziklomotorrak ezin dira aparkatu oinezkoen inguruetan edo irlatxoan, espaloien, lorategien gainean eta pasealekuetan, plazetan edo ibilgailuen trafikoa murriztuta duten gainerako lekuetan.
- 2.- Inguruabarrak direla-eta komenigarria denean, mota horretako ibilgailuek kasuan kasuko seinalea duten oinezkoen inguruetan aparkatuko dute. Aparkaleku horietara oinez hurbilduko dira, eserlekutik altzatuta eta motorra itzalita. Kasu horietan, indarra espaloia garaiera gainditzeko soilik erabiliko dute.
- 3.- Bi gurgildun ibilgailuak eta bi gurgildun motor-bizikletak espaloian edo pasealekuen gainean gelditzea eta aparkatzea baimendu daiteke, oinezkoek bertatik ibiltzea kalte edo oztopatzen ez denean, objektu handiren bat eraman dezaketen horien beharrezanez eta, bereziki, ezintasunen bat izan dezaketen pertsonen beharrezanez erantzunez.

51. artikulua

Ziklomotorrak galtzadan baterian aparkatuko dira, eta gehienez 1,5 metroko zabalera hartuko dute.

52. artikulua

Urritu fisikoek Administrazioak emandako txartelak badituzte, ibilgailuak debekatutako tokietan aparkatu ahal izango dituzte, leku hauetan izan ezik: nasak, espaloiak, oinezkoen pasabideak, geldialdi-debekua duten inguruak, pasabideak edo larrialdi-irteerak oztopatzen dituzten lekuak, bigarren ilaran edo zirkulazio-errei bat murrizten duten espazioak.

53. artikulua

Autobusek, linea erregularrekoak, herri barrukoak, herriz kanpokoak zein eskatu ahalako zerbitzuetakoak izan, udal-agintariak seinaleen bidez adierazi edo zehaztutako Bus geralekuak soilik erabili ahal izango dituzte bidaiariak hartu eta uzteko. Guztiz debekatuta dago autobusak leku horietan aparkatzea.

54. artikulua

Udalak, salbuespen moduan, udalerriko auzo edo inguru batzuetan aparkatzea mugatu ahal izango du, eta baimena ibilgailu jakin batzuei soilik eman ahal izango die.

I. ATALA APARKATZEKO TXARTELAK URRITASUNA DUTEN PERTSONENTZAT

55. artikulua

Elbarrientzako aparkaleku-erreserben xedea urritasuna duten pertsonen arazoak arintzea da. Horretarako, eta aparkalekuok modu bidezkoan erabiltzen direla bermatzeko, horien erabilera txandakakoa izango da. Aparkalekuok modu iraunkorrean erabili ahal izango dituzte soil-soilik beheko gorputz-adarrak mugitzeko urritasun fisiko larria duten gidariek. Horretarako, udal-organo eskudunari aurretiaz eskaera egin eta organoak baimena eman behar du.

56. artikulua

1. Aparkatzeko txartela norberarena eta transferiezina da, eta titularra ibilgailuan eramaten denean edo ibilgailua pertsona elbarriak daramanean soilik erabili daiteke.
2. Horrenbestez, elbarrientzat erreserbatutako aparkalekuak erabiltzen dituzten gidariek ibilgailuan dagoen txartela eta titularrak eraman beharreko eredu agenteari erakutsi behar dizkiete, azken horrek hala eskatzen dienean.

57. artikulua

Aparkatzeko txartelak adierazitako lekuetan eta aparkatzeko debekua duten lekuetan behar-beharrezko tartean aparkatzeko balio du, salbuespen hauek kontuan hartuta:

- Nasak edo espaloiak eta oinezkoen pasabideak.
- Gelditzeko debekua duten lekuak.
- Pasabideak edo larrialdi-irteerak oztopatzen dituzten lekuak.
- Zirkulazio-erreak murrizten dituzten espazioak ("bigarren ilarak").

58. artikulua

Aurreko artikuluan aipatutako behar-beharrezko tartea ezin da izan ordubetekoa baino luzeagoa; behar den moduan egiaztatutako arrazoiak direla bide, tarte hori luzatu egin daiteke.

II. TITULUA ZIRKULAZIO ARAU BEREZIAK DITUZTEN INGURUAK

I. KAPITULUA OINEZKOEN INGURUAK

59. artikulua

Oinezkoen inguruak dira erabilera publikoa duten kale, plaza, parke, herri barruko bide edo bide pribatuak, baldin eta udal-administrazioak leku horietan ibilgailuen zirkulazioa eta/edo ibilgailu batzuek edo guztiek aparkatzea guztiz edo modu partzialean debekatu badu.

60. artikulua

Oinezkoen inguruek sarreran eta irteeran seinale egokiak izan behar dituzte, eta seinale horiekin batera, inguru horretan ibilgailuak sartzea eta zirkulatzea eragozteko osagai mugikorrek egongo dira, salbu eta inguru horren izaera argia denean diseinua, egitura, apaindurak edo zoladura direla bide.

61. artikulua

Oinezkoen inguruetan, abiadura inoiz ez da izango 20 km/h baino handiagoa. Oinezkoen inguruetan, oinezkoek ibilgailuen aurrean lehentasuna izango dute kasu guztietan.

62. artikulua

Oinezkoen inguruetan, ibilgailuak zirkulatu eta aparkatzeko debekuak:

1. Perimetroaren barruan sartzen diren bide guztiak edo batzuk bakarrik hartuko ditu.
2. Izaera finkoa izan dezake edo asteko egun batzuei buruzkoa soilik izan.
3. Izaera jarraitua izan dezake edo aurretik ezarritako ordutegiaren bidez araututa egon daiteke.

63. artikulua

Inguru horietan, ezarritako mugek ez dituzte ibilgailu hauek ukituko zirkulazioari eta aparkatzeari dagokienez:

1. Polizia-zerbitzukoak, anbulantzia-zerbitzukoak eta medikuaren larrialdi-zerbitzukoak, suhiltzaileenak edo salbamendukoak, ezta zerbitzu publikoak emateko baimena dutenak ere, euren lana egiten ari diren bitartean.
2. Gaixoak edo ezinduak garraiatzen dituztenak.
3. Inguruan bertan kokatutako aparkaleku publiko edo pribatu baimendutik datozenak edo bertara doazenak.
4. Baimendutako leku eta orduetan zamalanak egiten dituzten ibilgailuak, baita bagaje edo fardel astun eta handiak garraiatzen dituztenak ere etxeen edo hotelen sarrera-irteeretan.
5. Auzokoak izateagatik, merkataritza-arrazoiengatik edo antzekoengatik beren beregi baimena dutenak.

64. artikulua

Alkatetza-lehendakaritzaren dekretu bidez, oinezkoen inguruetakoa araubidea arautu edo osatu ahal izango da.

II. KAPITULUA BIDEGORRIAK

65. artikulua

Udal Administrazioak beren beregi bizikletek erabiltzeko bidegorriak ezarri ahal izango ditu, eta horietan behar besteko seinaleak jarriko ditu.

66. artikulua

Debekatuta dago bidegorri horietan mota guztietako automobilak, motozikletak, ziklomotorrak eta bizikletak ez diren gainerako tresna mugikor guztiak zirkulatzeko eta aparkatzeko.

67. artikulua

Oinezkoek bidegorri horiek beren beregi adierazitako oinezkoen pasabideetatik gurutzatu beharko dituzte.

68. artikulua

Arau orokor moduan, bidegorriek ez dituzte oinezkoen inguruak edo parke publikoak zeharkatuko. Hala ere, aurkakoa erabakiko balitz, bizikletak bideko inguruabarretara egokituko dira, eta arreta handia izango dute oinezkoen inguruak edo parke publikoak zeharkatzen dituztenean.

III. KAPITULUA BIDE ETA ERREI ERRESERBATUAK

69. artikulua

Udal-agintariak ibilgailuen kategoria jakin batek erabiltzeko erreiak ezarri ahal izango dituzte, eta kategoria horretakoak ez diren gainerako guztiek bide horietatik ibiltzea debekatuta izango dute.

Erabilera murriztutako erreiak eta erabilera orokorrekoak bereizteko, zoladuran pinturaren bidez seinaleak egin daitezke, argi-seinaleak edo bereizle fisikoak ipini daitezke, baina kasu guztietan ziklomotorrentzat ondo ikusteko modukoak izan behar dute.

IV. KAPITULUA INGURU BEREZIAK

70. artikulua

Udal-agintariak beharrezkotzat dituzten inguru guztiak ezarri eta mugatu ahal izango dituzte udalerriaren barruan zirkulazioa mugatu, debekatu eta arautzeko.

Inguru bereziak izango dira segurtasun-arrazoiengatik, osasun publikoarengatik, trafikoa mugatzeko edo askotariko jarduerak egiteko (kirol-jarduerak, jaietakoak, kultura-jarduerak, obrak, etab.) ezartzen direnak.

III. TITULUA JARDUERAK BIDE PUBLIKOAN

I. KAPITULUA OZTOPOAK BIDE PUBLIKOAN

71. artikulua

Debekatuta dago bide publikoan oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioa zaildu edo trafiko-seinaleak ikustea oztopatu dezaketen oztopo edo objektuak ipintzea.

72. artikulua

Bide publikoan oztoporen bat jartzea ezinbestekoa bada, aldez aurretik udalaren baimena lortu beharko da eta, gainera, behar den moduan babestu eta kasuan kasuko seinaleak ipiniko dira; gaez, argiak ere ipiniko dira, bide publikoaren erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko.

73. artikulua

Emandako baimena dela bide, titularrek baimendutako inguruan osasungarritasun- eta higiene-baldintza egokiak zaindu behar dituzte, eta garatutako jarduerak direla bide, zoladura eta eragindako hondamenak konpondu beharko dituzte.

74. artikulua

Baimen horiek prekarioan ematen dira, eta ez dute inolako eskubiderik sortzen titularraren alde. Hori dela eta, Administrazioak askatasun osoz ezeztatu ahal izango ditu trafikoaren inguruabarrek edo antzeko izaerako beste arrazoi batzuek hala gomendatzen dutenean.

75. artikulua

Udal-agintariak oztopoak ofizioz kenduko dituzte, eta gastuak interesdunen kargura izango dira, inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

1. Kasuan kasuko baimena lortu ez dutenean.
2. Kasuan kasuko baimenaren epea muga-eguneratu denean.
3. Baimenean finkatutako baldintzak bete ez direnean.
4. Baimena eragin zuten inguruabarrak desagertu direnean.

Era berean, oztopoak kenduko dira segurtasun-arrazoiengatik edo higieneari edo osasunari lotutako arrazoiengatik hala jokatzeko beharrezkoa denean, baita obrak egiteko, asteko azoka egiteko, ikuskizunetarako, baimendutako segizioak igartzeko eta neurri hori justifikatzen duten antzeko kasuak daudenean; eragiketa hori Udalaren kargura egingo da debekua 24 ordu lehenago adierazi ez bada.

II. KAPITULUA ZAMALANAK

76. artikulua

Udal-agintariak zamalanetarako erreserbatutako inguruak zehaztu eta kasuan kasuko seinaleak ipiniko dituzte. Bide publikoan merkatugaiak kargatzeko eta deskargatzeko lanak xede horretarako erreserbatutako lekuetan egingo dira, eta seinaleetan kasu bakoitzerako adierazitako ordutegiaren barruan, leku bakoitzaren ezaugarriei eta inguruabarrei erreparatuz.

Dena den, eginkizun horiek baimendutako ordu eta lekuetatik kanpo baimendu ahal izango dira auzoei edo bideetako gainerako erabiltzaileei trabarik eragiten ez zaienean.

77. artikulua

Debekatuta dago goizaldeko 00:00etatik goizeko 07:00etara zamalanak egitea, baita kaxak, edukiontziak, materialak eta erremintak erabiltzea ere.

78. artikulua

Udalaren barruan, zamalanei buruzko arauak Alkatetza-lehendakaritzaren dekretu bidez garatu daitezke.

79. artikulua

Baimendutako ibilgailuek, hau da, oro har Garraio Txartela dutenek, zamalanetarako erreserbatuta dauden lekuetan aparkatu ahal izango dute soil-soilik eginkizun horiek egiteko; horretarako, eginkizuna arintzeko beharrezko bitartekoak erabili behar dira, eta beharrezkoak ez diren zarata eta trabak saihestuko dira. Edonola ere, ibilgailu horiek ezin izango dute leku horretan 15 minutuz baino gehiagoz egon inolako jarduerarik egin gabe.

80. artikulua

Zamalanetarako ingurua erabiltzeko baimena garraioan aritzen ez diren ibilgailuek ere izango dute, besteak beste: osasun-laguntzakoak, ezgaitu fisikoen ibilgailuak, epaitegiak, zainketakoak edo segurtasunekoak edo bestelako zerbitzu publikoetakoak. Horiek guztiak gainerako erabiltzaileei kalterik gutxien eragiten ahalegindu behar dira.

81. artikulua

Zamalanetako merkatugaiak, materialak edo gauzak ez dira bide publikoan utziko; aitzitik, zuzenean eramango dira higiezinetik ibilgailura edo alderantziz.

82. artikulua

Zamalanek pertsonen osotasunerako arriskua badakarte edo ondasunetan kalteak eragin ahal badituzte, eragiketa horiek behar den moduan adieraziko dira, Udaltzaingoak zehaztutako baldintzetan.

III. KAPITULUA BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOA

I. ATALA INSTALAZIOAK

83. artikulua

Debekatuta dago bide publikoan edukiontzia, mahaitxoak, kioskoak, salmahaiak, salmenta-postuak, dirua biltzeko mahaiak edo bestelako oztopo edo gauzak jartzea udalak aurretik baimena eman ez bada eta behar den moduan babestuta, adierazita edo argiztatuta ez badaude, betiere, erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko eta kasuan kasuko baimenean ezarritako arauak beteta.

Edukiontzia, mahaitxoak, kioskoak, salmahaiak, edukiontzi gisa erabilitako ibilgailuak eta kaleko gainerako altzariak kokatzeko erreserbatutako lekuak aparkaleku-erreserben izaera izango dute galtzadan baldin badaude. Kasu horietan, emakidaren aurretik, Udaltzaingoak beren beregi baimena eman behar du, eskaerari baiezkua edo ezezkoa emanez, behin inguruko zirkulazioaren edo aparkalekuen inguruabarrei erreparatuta. Gainerako kokalekuetan, Udaltzaingoak horren inguruan duen iritzia entzun beharko da.

Instalazio horiek guztiek kasuan kasuko Ordenantza fiskalean jarduera horretarako ezarritako tasa ordainduko dute.

II. ATALA OBRAK

84. artikulua

Debekatuta dago bide publikoan obrak egitea alde aurretik udalaren baimena lortu ez bada, eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko babes-neurriak eta egunez eta gauez seinale egokiak jartzen ez badira.

Bide publikoan obrak egin behar dituztenek Udaleko Bulego Teknikoan obra horietan kokatuko diren seinaleen ezaugarriak eta edukia azaldu beharko dituzte plegu baten bidez. Udaltzaingoak erabakiko du neurri horiek nahiko diren edo ez, eta Udaltzaingoak berak erabakiko du gatazka egongo balitz.

85. artikulua

Behin kasuan kasuko baimena lortuta, aparkatzeko erabili ohi den galtzadaren aldean, aurrerantzean okupatuta egongo den horretan, "debekatuta dago gelditzea eta aparkatzea" plaka ipini beharko da obrak egiten hasi baino 48 ordu lehenago, salbu eta presako arrazoiengatik epe hori murrizten denean.

Aurreko lerrokadan aipatu epearen barruan, obrak egingo dituen enpresak ukitutako ibilgailuen aurreko beiran oharrak ipiniko ditu, eta ibilgailu horien matrikula-plakak idatziz jasoko ditu, eta titularrek edo gidariek bertatik kendu beharko dituzte. Ibilgailuen jabeak aurkitu ezin izan badira, ibilgailuak bidean bertan lekuri hurbilenera eramango dira, inolako kargurik gabe.

86. artikulua

Okupatuta dagoen bidearen alderdian ikuspen-arazoak edo oztopoak sortzen badira trafiko handia dela eta, beharrezkoa izango da zirkulazioa arautzea esku-seinaleak dituzten langileen bidez; horiek kontratistak ezarriko ditu.

87. artikulua

Seinale, baliza edo babesgarriak, horiek jarri dituztenek aldatu eta kendu beharko ditu horiek jartzeko oztopoa aldatu edo desagertu bezain laster, egunaren edozein unetan izanda ere, eta, bereziki, gauean eta jaiegunetan.

Atal honetako arau-haustek astunak izango dira.

III. ATALA EDUKIONTZIAK

88. artikulua

Mota guztietako edukiontzia bide publikoan kokatzeko, nahitaezkoa izango da kasuan kasuko udal-baimena izatea.

89. artikulua

Kokapen horren galtzadari kalteak eragiten badizkio, baimena luzatu aurretik udaltzaingoaren txostena eskatu beharko da; txosten hori nahitaezkoa izango da.

90. artikulua

1. Bide publikoan kokatutako edukiontzi guztietan horien gaineko jabearen izena eta telefonoa agertu beharko dira, bai eta edukiontzia zenbakia eta lizentziaren balio-epaia ere.

2. Edukiontzi horiek olana batekin estali behar dira, horiek geldi eta lan-orduetatik kanpo kokatuta daudenean, bai eta lekuz aldatzen direnean ere, hain zuzen ere, inork edukiontzietan ezer ez sartzeko, bere edukia ez ikusteko edo hori bide publikoan ez zabaltzeko ere, dela haizearen eraginez dela pertsona lotsagabeengatik.

91. artikulua

Edukiontzien ez badute lizentzia egokirik edo aurreko artikuluan aipatutako datuak biltzen ez badituzte, horiek bere jabearen kontura kendu ahal izango dira, horren ondorioz sor daitezkeen salaketei kalterik egin gabe.

IV. KAPITULUA ETXE-ALDAKETAK

92. artikulua

Edozein pertsona fisikok edo juridikok etxe-aldaketa egin behar badu, kasuan kasuko udal-baimena eskatu eta lortu beharko du. Eskaera horren izapideak sail eskudunak egingo ditu, eta, ostean, udaltzaingoari helaraziko zaio, beti zirkulazio-arauak aintzat hartuta.

93. artikulua

Aurrekoa gorabehera, baimenaren titularrak udaltzaingoari 48 ordu lehenago komunikatu beharko dio zerbitzu hori noiz eta non egin behar den.

V. KAPITULUA KIROL-PROBAK – KULTURA-EKITALDIAK – HERRIKO JAIK ETA ANTZEKOAK

94. artikulua

Kirola, kultura, filmaketa, telebista, jai edo antzekoekin lotura duten ekitaldiei dagokienez, horiek galtzada ukitzen badute, orduan kasuan kasuko udal-baimena izan beharko dute, betiere udaltzaingoaren aurretiazko txosten zehatzarekin batera.

95. artikulua

Egin diren izapideen baimena, bidezkoa denean, puntu hauen baldintzapean emango da:

- 1.- Jabetzarako sarbidea une oro irekita egotea eta larrialdietarako ibilgailu nahiz garraio publikoei pasabidea uztea.
- 2.- Ekitaldi guztiak amaitzean bide guztiak libre eta zabal geratzea; hori dela eta, baimendutako titularrek galtzada eta espaloiaren zoladuran eragindako hondamenen gaineko erantzukizuna izango dute, bai eta egindako ekitaldia dela medio kokatutako edozein plataforma edo instalazio berehala kentzeko ardura ere.

96. artikulua

Baimen horiek udaltzaingoari jakinaraziko zaizkio.

97. artikulua

Aipatu baimenak prekarioan ematen dira, eta horiek ez dute inolako eskubiderik sortzen onuradunen mesederako. Horregatik, baimenok askatasunez ezeztatu daitezke, baldin eta trafikoa, arrisku edo antzeko izaera duten inguruabarren ondorioz hala egitea gomendatzen bada.

98. artikulua

Ekitaldien antolatzaileek kasuan kasuko baimenak, eta, hala denean, abalaz ez badituzte aurkezten horiek beharrezkoak direnean, udaltzaingoak aipatu jarduerak eten ahal izango ditu.

99. artikulua

Ekitaldia antolatzen duen pertsonak edo erakundeak baimenean jasotako mantentze-neurria bermatzeko ardura izango du ekitaldiak amaitu arte. Halakorik gertatu ezean, udaltzaingoak ekitaldiok eten ahal izango ditu.

100. artikulua

Kultura, kirola, filmaketa edo antzeko ekitaldien ondorioz, aparkalekua behin-behinean erreserbatzeko interesa dutenek, hori udalean eskatu beharko dute, eta eskaera horren izapideak udal-sail eskudunak egingo ditu. Baimen horren kopia udaltzaingoari igorriko zaio, horren berri izan dezan.

VI. KAPITULUA MAKINA SALTZAILEAK ETA JOLAS-AISIARAKO INSTALAZIOAK

101. artikulua

Arau orokorra denez gero, debekatuta dago erabilera publikoko ondasunetan, bereziki, bide publikoan edozein motatako makina saltzaile edo jolas-aisiarako instalazio kokatzea, edozein zerbitzu-publikotik kanpo badago, salbu eta udal-agintari eskudunak halakoak beren beregi ematen dituenean.

VII. KAPITULUA BIDE PUBLIKOETAN DEBEKATUTAKO ERABILERAK

102. artikulua

1. Arau orokorra denez gero, erabilera publikoko bideetan, kaleetan eta plazetan debekatuta daude jolasak, jostaketak edo jarduerak, baldin eta horiek eragozpena sor badituzkete beste erabiltzaileentzat edo horiek gauzatzen ari direnentzat, salbu eta horretarako zehazki gaitutako guneetan.

2. Aurreko debekua errespetatzen ez bada, horren ondorioz aurkeztu daitekeen salaketa edozein izanda ere, udal-agintariak joko, jostaketa edo jarduera konfiskatuko du.

103. artikulua

Jende-bilerek edo jendetzek udalaren aurretiazko baimena beharko dute, baldin eta oinezkoen edo ibilgailuen pasabiderako trabak edo arriskuak eragin badituzkete. Ekitaldi horien baimenak ezeztatu ahal izango dira halakoetan parte hartu dutenei edo hirugarrenei eragozpenak sortzen dizkiela antzematen badute.

104. artikulua

Debekatuta dago merkatugai arriskutsuak garraiatzeko edozein ibilgailu geldiaraztea, dela hutsik dela kargatuta badago, udalerriko edozein bide publikotan.

Salbuespen gisa hartzen da aparkatzea, betiere aurretiazko baimena badu zamalanak egiteko bereziki zehaztu guneetan; baimen hori eragiketa horiek egiteko beharrezkoa den gutxieneko denboran bakarrik erabili beharko da.

105. artikulua

Debekatuta dago bide publikoetan ibilgailuak ikuzi, garbitu eta mantentzea.

VIII. KAPITULUA LEHENESPENEN BIDEAK EDO ZIRKULAZIO HANDIKOAK

106. artikulua

Udalak, aurretiaz udaltzaingo sailari kontsulta eginda, zenbait bide lehenespenekotzat edo zirkulazio handikotzat joko ditu, horietan geldialdiak edo aparkatzea debekatu eta ordenantza hau haustearen ondoriozko zehapenak handitu daitezten.

Zirkulazio handia duten bide horiek informazio-seinaleen bidez identifikatuko dira.

IV. TITULUA ZIKLOMOTORREEN ETA BIZIKLETEN ZIRKULAZIOA

107. artikulua

Bizikleta eta ziklomotorretako gidariek indarreko zirkulazio- eta seinale-arauak ezagutu beharko dituzte; arauok eta agintaritzako agenteen aipamenak bakarrik bete beharko dituzte.

108. artikulua

Bizikletak horietarako bereziki erreserbatutako erreietan zirkulatuko dute, baina bertatik igarotzen diren oinezkoen lehenespena errespetatuko da. Galtzadatik zirkulatu behar bada erreserbatu gabeko biderik ez izateagatik, eskuinetik ahalik hurbilen zirkulatuko dute, salbu eta ezkerralderantz biratu behar badute.

109. artikulua

Bidearen titulartasuna eta mota edozein izanda ere, txirrindulariek buru-babesa nahitaez erabili beharko dute, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorrean jasotako salbuespenak izan ezik.

110. artikulua

1. Talde batean zenbait txirrindulari edo motor-gidari badaude, bata bestearen atzetik zirkulatuko dute, betiere horien artean segurtasun-tartea gordeta eta abiadura- edo trebetasun-eskumenak ezarri gabe. Edozein kasutan ere, paraleloan egindako zirkulazioa debekatzen da.

2. Txirrindulariek herri barruan taldean zirkulatzen badute, horietako bakoitzak semaforoan seinaleak errespetatu beharko dute.

111. artikulua

Bizikleta, motozikleta edo ziklomotorretako gidariek galtzadan gurpil bakar batekin zirkulatzeko esanbidezko debekua dute. Gisa berean, ziklomotor, bizikleta, patin, monopatin edo antzeko tresnen erabiltzaileek abian doazen ibilgailuetatik oratzeko debekua dute.

112. artikulua

Ziklomotorren jabe guztiak, horiekin zirkulatu ahal izateko, euren bizilekuan dagoen Trafikoko Probintzia Buruzagitzan matrikulatu behar dira Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onetsi duen abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

113. artikulua

Ziklomotorren kasuan, eguneko 24 orduetan argiak biztuta zirkulatu behar dute.

114. artikulua

Ziklomotorretako gidari guztiek eta euren gidari-lagunek homologatutako buru-babes egokia eraman beharko dute, eta debekatuta dago hori jantzita ez eramatea.

IV. TITULUA KAMIOIEN ZIRKULAZIOA

I. KAPITULUA ZIRKULAZIOA

115. artikulua

1. Herri barruko bideak. Debeekatuta dago 12 tona baino PMA handiagoko kamioien zirkulazioa, salbu eta udal-organo eskudunaren aurretiazko baimena lortzen badute.

2. Udaleko landa-kamioiak: Debeekatuta dago 7,5 tona baino PMA handiagoko kamioien zirkulazioa, nekazaritza- edo baso-atazak egiteko denean izan ezik. Horretarako, kasuan kasuko baimena eskatu behar da eta abala eratu behar da bertan zehaztutako baldintzetan. Inoiz ez da baimenduko 25 tona baino pisu handiagoko ibilgailuen zirkulazioa.

II. KAPITULUA ZAMALANAK

116. artikulua

1. Herri barruan debeekatuta dago zamalanak egitea gaueko 0:00etatik goizeko 7:00ak arte.

2. Era berean, debeekatuta dago udalerriko bide publiko guztietan, baimenduta dagoen gehieneko 7,5 tonako pisua baino handiagoko ibilgailuen zamalanak egitea, hori beren beregi baimentzen denean izan ezik.

III. KAPITULUA MERKATUGAI ARRISKUTSUAK

117. artikulua

Debeekatuta dago herri barruan merkatugai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuen zirkulazioa.

Salbuespenez, ibilgailu horiek herri barruan sartu ahal izango dira jarraian azaldutako kasuren bat gertatzen denean:

1. Merkatugaien zamalanak, banaketa edo banatzea.
2. Ezinbesteko kasuan, behar bezala justifikatuta.

V. TITULUA PERTSONEN GARRAIOA

I. KAPITULUA ESKOLAKO ETA ADINGABEEN GARRAIOA

118. artikulua

Udalerriko eskolako eta adingabeen garraio-zerbitzua emateko, kasuan kasuko agintarien baimenak eskuratu behar dira.

119. artikulua

Eskolako eta adingabeen garraio ezberdina burutzen duten ibilgailuek kasuan-kasuan behar den baimena eskuratu beharko dute.

120. artikulua

Galdakaoko udalak ezarri beharko ditu eskolako eta adingabeen garraiorako ibilgailuek egin beharreko ibilbideak, bai eta egin beharreko geldialdiak ere; geldialdi horietan, ikasleak jaso eta bertan utziko dira, eta ezin da toki horretatik kanpo egin. Hori dela medio, eta azken erabakia hartu aurretik, garraioetako arduradunei eskatuko zaie proposatutako ibilbidea, egin nahi dituzten geldialdiak eta zerbitzua burutuko duten ibilgailuen identifikazio-matrikulak azal ditzaten.

121. artikulua

Eskolako eta adingabeen garraioa burutu behar duten ibilgailuek bete beharreko baldintzak, eskola-umeen garraioan eta adingabeen segurtasun-baldintzei buruzko apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuan jaso dira; dekretu horretan, ibilgailuen antzintasuna, eserlekuaren dimentsioak, eserleku bakoitzean izan beharreko pertsona-kopurua, ateen irekiera, ibilgailuen azterketa teknikoa, argibide-plaka, eta abar zerrendatzen dira.

122. artikulua

Baimena baliozkoa izango da kasuan kasuko ikasturterako bakarrik, eta baimen berri bat eskatu beharko da hasieran eman ziren baldintzei begira aldaketaren bat egin nahi bada.

123. artikulua

Aurreko paragrafoetan aipatu baimen guztiak udaltzaingoari jakinarazi beharko zaizkie, horien berri izan eta ondoreak sortzeko.

124. artikulua

Geldialdietan ezin izango da geratu bidaiariak jaso eta uzteko behar den denbora baino gehiago.

II. KAPITULUA UNIBERTSITATEKO GARRAIOA

125. artikulua

Unibertsitateko garraioa ordenantza honetako 118, 120, 122, 123 eta 124. artikuluetan ezarri baldintzen mende geratuko da, eta aplikatzeko egoki den gainerako arauketaren mende.

III. KAPITULUA ESKATU AHALAKO GARRAIOA

126. artikulua

Bederatzi eserleku baino gehiagoren garraioa eskatu ahala egiteko zerbitzua, gidaria barne, jatorria eta/edo destinoa udalerrian izanik, udal-agintariaren mende geratuko da.

127. artikulua

Zerbitzuaren titular diren pertsona fisikoek edo juridikoek udalaren baimena eskatu beharko dute, eta horiek indarreko legeriak eskatutako agiriak, proposatutako ibilbidea eta egiteko asmoa duten geldialdiak aurkeztuko dituzte eskabidearekin batera.

128. artikulua

Baimena baliozkoa izango da bertan ezarri eperako bakarrik, eta baimen berria eskatu beharko da hori eman zenean ezarri baldintzetan aldaketarik egin nahi bada.

129. artikulua

Eskatu ahalako garraioaren geldialdietan ezin izango da geratu bidaiariak jaso edo uzteko behar den denbora baino gehiago.

IV. KAPITULUA GARRAIO PUBLIKOAREN GELDIALDIAK

130. artikulua

Zirkulazioari buruzko udal-sail eskudunak zehaztuko ditu garraio publikoak egin beharreko geldialdiak, herri barruan zein herriz kanpo, hala denean.

131. artikulua

Geldialdietan ezin izango da geratu bidaiariak jaso eta uzteko behar den denbora baino gehiago, lerroaren jatorria edo amaiera gisa zehaztutakoetan izan ezik.

132. artikulua

Taxi-zerbitzuetarako geldialdietan, zerbitzu horretako ibilgailuak bidaiarien zain bakarrik egon ahal izango dira.

133. artikulua

Zerbitzu horretara atxikitako ibilgailu-kopuruak inoiz ezin izango du gainditu geldialdian dagoen pertsona-kopurua.

VI. TITULUA KAUTELA-NEURRIAK

I. KAPITULUA IBILGAILUAK IBILGETZEA

134. artikulua

Udaltzaintzako agenteek ibilgailuen ibilgetze teknikoak hurrengo kasuetan gauzatu ahal izango dute, kasuan kasuko arau-haustearen ondoriozko salaketari kalterik egin gabe:

1. Ibilgailuak bide-segurtasunerako arrisku bereziki larriak eragin ditzakeen akatsak dituenean.
2. Ibilgailuak zirkulatzeko administrazioaren baimenik ez duenean, lortu ez duelako edo baliogabetu zaiolako, indarraldia galdutzat jo zaiolarik.
3. Gidariak botatako arnasaren alkohol-tasa lege bidez ezarritakoa baino handiagoa denean, edo gai sorgogarrri edo antzekoen mende dagoenean, eta, horrez gain, bere tokian bere ordezkari gidaririk jarri ezin denean.
4. Gidariak edo gidatzera gaitutako gidari-lagunak botatako arnasaren alkohol maila antzemateko probak egiteari uko egiten dietenean, eta edari alkoholduak hartu dituela antzematen denean.
5. Ibilgailuaren okupazioa gehiegizkoa denean, gidaria alde batera utzita, baimendutako plaza-kopurua baino ehuneko 50 gehitzea suposatuko lukeelarik.
6. Trafikoko arau-haustea salatzean, salatuak bere ohiko bizilekua Espainiako lurraldean dagoela egiaztatzen ez duenean eta isunaren behin-behineko zenbatekoa gordailutu edo bermatzen ez duenean.
7. Ibilgailuak arauzko argiztapenik ez duenean edo martxan jartzen ez denean bere erabilera nahitaezkoa izanez gero.
8. Ibilgailuaren nahitaezko aseguruak ez dagoenean.
9. Gidariak edo bidaiariak babes-kaskoa ez darabilenean, derrigorrezkoa den kasuetan.
10. Gidaldietan gehiegikeria edo atsedendietan murrizketa, araudiaren arabera ezarritako denbora baino ehuneko 50etik gorakoak direla ikusten denean, gidaria beste batek ordezkatu ez badu.
11. Ibilgailu motaren araberrako araudiari jarraiki onartuta dauden gas, ke eta zarata mailak gainditzen dituenean ibilgailuak.
12. Kontrol-tresnetan manipulazioa egon dela agertzen duten zantzu arrazionalak daudenean.
13. Ibilgailuak Trafikoko Agenteen zainketa eta irudi bidezko kontrol-baliabideak saihesteko mekanismoak edo sistemak dituela antzematen denean.

135. artikulua

Ibilgetze-neurria kenduko da hori ezartzeko arrazoiak desagertu bezain laster, betiere gidariak hori agindu zuen agintariari eskatuz; hala ere, aurretiaz kasuan kasuko Zerga Ordenantzaren ezarri zenbatekoa ordaindu beharko da.

II. KAPITULUA IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENTZEA

136. artikulua

Udaltzaingoak ibilgailua bide publikotik kendu eta horretarako zehaztu tokietan gordailutzeko agindua emango du, hurrengo inguruabarretatik edozeinetan aparkatuta aurkitzen bada:

1 – Gainerako oinezko eta gidarientzat arriskua sortzen duten tokietan.

Ulertuko da aparkatutako ibilgailuak gainerako oinezkoentzat eta gidarientzat arrisku-egoera sortzen duela halakoak gertatzean:

- Kale eta inguruen elkarguneetan, ikusmena murriztuz.
- Zirkulazio-seinaleak ikustea oztopatzen duten tokietan.
- Espaloiko hegalarren erpinetik aterata geratzen denean, gainerako gidari guztiek euren ibilbidea aldatzera behartuz, edo ibilgailuen bira eragotziz.
- Ikuskizun publikoetako eta entrenamenduak egiteko lokalen larrialdietako irteera oztopatzen denean, - horiek irekita dauden bitartean.
- Zirkulaziorako ezarri bideko erreietan.
- Erdibitzaileetan, banatzaileetan, oinezkoen irlatxoetan edo trafikoa zuzentzeko bestelako osagaiak.
- Marra zuriekin zehaztutako zoladura-zatietan.

2 – Oinezko edo ibilgailuen zirkulazioa modu larrian oztopatzen bada.

Ulertuko da aparkatutako ibilgailuak oinezko edo ibilgailuen zirkulazioa modu larrian oztopatu duela halakoak gertatzean:

- a) Geldialdia debekatuta dagoenean.
- b) Aparkatzea debekatuta dagoenean, salaketa egin zenetik 24 ordu igaro ondoren.

- c) Beste ibilgailuak pasatzen uzten ez denean.
- d) Baimendutako pasabidea oso-osorik edo zati batez hartzen duenean.
- e) Behar bezala aparkatuta dagoen ibilgailua zirkulazioan sartzea eragozten denean.
- f) Bigarren ilaran gidaririk gabe aparkatuta dagoenean, edo gidaria badago ere, borondatez hori kentzeko ezetza ematen duenean.
- g) Oinezkoen pasabidean baimendutako orduetatik kanpo aparkatuta dagoenean, beren beregi baimendutako aparkamenduak izan ezik.
- h) Gainerako erabiltzaileen zirkulaziorako edo zerbitzurako bakarrik erreserbatutako bideen erreietan edo zatian sartzen direnean.
- i) Oinezkoen edo txirrindularien pasabideetan, edo inguruetan aparkatuta dagoenean.
- j) Espalioan, oinezkoen irlatxoetan eta oinezkoentzat erreserbatutako guneeetan aparkatuta dagoenean.
- k) Lehenespina edo **zirkulazio** handia duten bideetan, baldin eta horretarako gaitutako guneeetatik kanpo aparkatuta badago.
- l) Elkartugunean aparkatuta dagoenean, hegaletik gutxienez 5 metrotara, aparkatzea baimenduta duten tokietan izan ezik.

3 – Zerbitzu publikoren baten jardunbideari trabak jartzen badio.

Ulertuko da aparkalekuak zerbitzu publikoren baten jardunbideari trabak jartzen dizkiola jarraian azaldutako inguruabarretatik edozein gertatzen denean:

- a) Garraio publikoko ibilgailuentzat erreserbatutako geldialdietan.
- b) Garraio publikoko ibilgailuen zirkulaziorako erreserbatutako erreietan.
- c) Asteko larunbata guztietako azoka txikia jartzeko gaitutako gunean, 6:00etatik 16:00etara.
- d) Hiriko hondakin solidoen edo bestelako hiri-altzarien edukiontzia kokatzeko erreserbatutako guneeetan.
- e) Larraldietarako eta segurtasunerako zerbitzuei erreserbatutako irteeretan.
- f) Behar bezala seinaleztatutako eraikin ofizialen segurtasun-perimetroetan.

4 – Ondare publikoan galerak edo narriadura eragiten bada.

Ulertuko da aparkatzeak ondare publikoaren gain galera edo narriadura eragiten duela hori lorategietan, alaxuetan, zuhaitzietan eta hiria apaindu edo edertzera zuzendutako bideen bestelako zatietan burutu bada.

5 – Bertan behera utzita badago.

Udal-agintariak arrazoiz uste ahal izango du ibilgailu bat bertan behera utzita dagoela hurrengo kasuetan:

- a) Toki berean hilabete baino gehiago aparkatuta dagoenean eta, kalteak direla medio, bere kabuz mugitu ezin denean edo matrikula-plakak falta zaizkionean.
- b) Matxura edo istripuaren ondorioz ibilgailu bat barruti pribatu baten egonik, titularra bi hilabeteko epean kenduko ez balu.

6 – Ibilbidean aurrera egitea oztopatzen duten istripuak gertatzen direnean.

7 – Narriadura-egoera handia izateagatik ibilgetuta geratzen denean.

8 – Legez ibilgetu behar denean hori behar bezala egiteko toki egokirik ez egon gabe, eta ibilgailu eta pertsonen zirkulazioa eragotzi gabe.

9 – Beste erabiltzaile batzuk udal-agintariak bereziki erreserbatutako zonak hartu edo bertan sartzen direnean, behin-behinean edo modu iraunkorrean, edo jarduera jakin batzuk egiten dituztenean. Hori gertatuko da:

- a) Zamalanetako zonaldean.
- b) Udal agintaritzak elbarrien erabilerarako gordetako aparkalekuko zonalde gisa egokitutako tokietan, baimentzen duen bereizgarrik jarri gabe.
- c) Udal agintaritzak ordutegi mugatuko aparkaleku gisa egokitutako tokietan aparkaturik dagoenean, baimentzen duen bereizgarria jarri gabe, edo Udal Ordenantzan ezarritakoaren arabera ordaindutako denboraren hirukoitza gainditzen denean.

137. artikulua

Behar bezala aparkatuta egonda ere, udaltzaingoak ibilgailuak bide publikotik kendu ahal izango ditu hurrengo kasuetan:

1. Behar bezala baimendutako ekitaldia egiteko ezarri tokietan aparkatuta daudenean.
2. Bide publikoa garbitu, konpondu edo seinaleztatzeko atazak egitera zuzendutako guneeetan aparkatuta daudenean.
3. Larraldietarako kasuetan.
4. Ibilgailua aparkatuta izanik alarma jotzen hasten bada eta 15 minutu baino gehiago igaro badira, jabea aurkitu gabe, edo aurkitu bada ere horren gaineko erantzukizuna hartu ez badu zehaztu epealdian.

5. Trafikoa, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioa eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatua onetsi zuen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko 67.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, ibilgailua ibilgetzen denean, arau-hausleak berriro ere ezetza ematen badu isunaren ordainketa gordailutu edo bermatzeko.
6. Ibilgailua ibilgetu denetik 24 ordu iragan direnean 134. artikuluan ezarri arazoietatik edozeinen ondorioz, neurri hura eteteko eskaera egin gabe.
7. Ibilgetutako ibilgailua ziurtatzeko, ibilgailua toki horretan egoteak bidean dauden beste erabiltzaileentzat edo ibilgailuarentzat arriskua sortzen badu.
8. Atoiak edo karabanak ibilgailu traktore gabe aparkatuta egotea.

138. artikulua

Halaber, ibilgailua bide publikotik kendu eta udal-gordailura lekualdatuko da hurrengo inguruabarretatik edozein geratzen denean:

1. Nahitaezko Udal Diru-Bilketak ibilgailua enbargatzeko agindua eman denean.
2. Ziklomotorra bide publikoetatik matrikula-plakarik gabe edo ingurumeneko akats larriekin zirkulatzen duenean, eta sail eskudunak hori berrikusteko agindua ematean jabea tokian eta epean bertaratu ez denean.

139. artikulua

Legez ezarri eta kasuan kasuko Zerga Ordenantzan jasotako salbuespenak izan ezik, ibilgailua bide publikotik kendu eta udaleko ibilgailuen gordailuan izateagatik sortutako gastuak titularraren, maizterraren edo ohiko gidariaren kontura ordainduko dira, kasuaren arabera, gastu horiek ordaindu edo bermatu beharko dituelarik, ibilgailua itzultzeko aurretiazko betekizun gisa, berak jarri dezakeen errekurtoa jartzeko eskubideari kalterik egin gabe. Bestalde, titularrak edo horretarako egiaztatutako pertsonak soilik kendu ahal izango du ibilgailua bide publikotik.

140. artikulua

Ibilgailua bide publikotik kentzea berehala eten egingo da baldin eta gidaria garabiak ibilgailua eraman aurretik bertaraten bada, eta horren egoera irregularra amaitzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen baditu, kasuan kasuko zerga-tasa sortzeari kalterik egin gabe.

141. artikulua

1. Udal-agintariak berehala kenduko ditu bertan aurkitzen diren objektu guztiak, bai eta horien gaineko erantzulerik agertzen ez bada ere; halakoetan, udal-gordailura lekualdatuko dira.
2. Era berean, objektuak oinezkoen edo ibilgailuen trafikoa oztopatzen duenean, bai eta bere jabea hori berehala kentzera uko egiten duen kasuan ere.
3. Objektuak bide publikotik kendu eta udal-gordailuan izateagatik sortutako gastuak titularraren kontura ordainduko dira; kasu horretan, gastuok ordaindu edo bermatu beharko ditu objektuak itzultzeko aurretiazko betekizun gisa, berak jarri dezakeen errekurtoa jartzeko eskubideari kalterik egin gabe. Titularrak objektuak kendu ahal izango ditu.

VII. TITULUA BERTAN BEHERA UTZITAKO IBILGAILUAK

I. KAPITULUA BIDE PUBLIKOETAN

142. artikulua

Ulertuko da ibilgailua bertan behera utzita dagoela hurrengo inguruabarretatik edozein gertatzen bada:

1. Toki berean hilabete baino gehiago aparkatuta dagoenean eta, kalteak direla medio, bere kabuz mugitu ezin denean edo matrikula-plakak falta zaizkionean.
2. Matxura edo istripuaren ondorioz ibilgailu bat barruti pribatu baten dagoela jaso, eta titularrak bi hilabeteko epean kenduko ez balu.

143. artikulua

Bertan behera utzitako ibilgailuak zirkulaziorako edo zerbitzu publikoren baten jardunbiderako arriskurik edo traba handirik sortzen ez duenean; kasu horretan, berehala kenduko da, eta modu honetan jardungo da:

1. Inguruabarra Ibilgailuko Erregistroko titular gisa agertzen denari jakinaraziko zaio, bost eguneko epean ibilgailuaren gaineko ardura hartu eta bertan behera utzitako egoera aldatzeko.
2. Bost egun igaro ondoren, ibilgailua oraindik bertan behera utzitako egoera berean badago, hori udal-gordailura eramango da, kasuan kasuko zehapen-espeditentza hasteari kalterik egin gabe.

Bertan behera utzitako ibilgailuak bide publikotik kentzeagatik sortutako gastuak titularraren, maizterraren edo ohiko gidariaren kontura ordainduko dira.

II. KAPITULUA UDAL-GORDAILUAN

144. artikulua

Ibilgailuak bide publikotik kendu badira ordenantza honetan jasotako zioak edo justifikatutako beste arrazoi batzuk direla medio, eta ibilgailua gordailuan sartu denetik edota prozedura amaitzen denetik titularrek edo jabeek ez badituzte kendu ibilgailuok bide publikotik, bi hilabete igaro ondoren, ulertuko da ibilgailu horiek bertan behera utzi direla eta hurrengo kapituluan ezarritakoaren arabera jardungo da.

III. KAPITULUA BERTAN BEHERA UTZITAKO IBILGAILUA KUDEATU ETA EZABATZEA

145. artikulua

Galdakaoko Udalak ibilgailua Ibilgailuak Tratatzeke Baimendun Zentro batera eramatea agindu dezake, ondoren suntsitu eta deskontaminatzeko:

- a) Ibilgailua ibilgetu edo bide publikotik kendu denetik eta Administrazioak gordailutu duenetik bi hilabetetik gora iragan denean eta titularrak alegaziorik aurkeztu ez duenean.
- b) Toki berean hilabete baino gehiago aparkatuta dagoenean eta, kalteak direla medio, bere kabuz mugitu ezin denean edo matrikula-plakak falta zaizkionean.
- c) Matxura edo istripuaren ondorioz ibilgailu bat barruti pribatu baten dagoela jaso, eta titularrak bi hilabeteko epean kenduko ez balu.

Ibilgailua eramatea agindu aurretik, Administrazioak titularrari ohartaraziko dio, hilabeteko epean kentzen ez badu, Tratatzeke Baimendun Zentrora eramango dela.

Ibilgailuen titularrak ezezagunak direnean edo horiek non dauden jakiterik ez badago, horiek aurkitzeko kudeaketak probetxugabeak izan ondoren, aurreko ataleko jakinarazpena egingo da, Herri-administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazioaren Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koaren 59.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, bere azken bizileku ezaguneko udalaren ediktu-taulan jarritako iragarkien bidez, bai eta "Bizkaiko Aldizkari Ofiziala"ren bidez ere, ibilgailuen aipamenak eta ezaugarriak zehatz-mehatz adierazita.

Alkateak edo eskuordez dagokion agintariak, erabaki dezakete ibilgailua suntsitzearen ordezkari adierazteko trafikokoaren zainketa eta kontrol zerbitzuei, hurrenez hurren eremu bakoitzean.

146. artikulua

Hondakin bihurtutako ibilgailuaren titularra erantzukizun orotik salbuetsita gera daiteke aipatu ibilgailua baimendutako kudeatzaile bati laga edo udalari ematen badio; edozein kasutan ere, aipatu lagapena agiri fede-emailearen bidez jaso beharko da.

Bertan behera utzitako ibilgailuak, hiriko ondasun solidotzat jotakoak, udalak zuzenean edo zeharka kudeatu ahal izango ditu indarreko legerian ezarri mekanismoak eta prozedurak aplikatuta, eta kudeatzaile jakin batzuen mesederako emakidak eta esleipenak erabakiz.

147. artikulua

Udalak baja emango die aipatu epeak igarotzeagatik bertan behera utzitako ibilgailuei, herriko hondakin solidotzat jotakoei, Trafikoko Probintzia Trafikoari zuzendutako eskaeraren bidez.

VIII. TITULUA ARAU-HAUSTEAK ETA HORIEN IZAPIDETZA

I. KAPITULUA ERANTZUKIZUNAK

148. artikulua

Ordenantza honetan xedatutakoa haustearen ondoriozko erantzukizuna zuzenean arau-haustearen egitate horren egileak izango du. Hala ere:

- a) Gidaria eta bidaiaria izateagatik kaskoa erabiltzea exijitzen zaion motorreko, motor-bizikletako, karrozatu gabeko hiru edo lau gurpildun ibilgailu bateko edo beste edozein ibilgailutako gidaria erantzulea izango da, babes-kaskoa ez erabiltzeagatik, hala nola exijitzen den gutxieneko adina ez duten bidaiariak garraiatzeagatik. Era berean, ibilgailuaren gidaria erantzulea izango da haurrak atxikitze sistemak ez erabiltzeagatik, salbuetsita 339/1990 Legegintzako Dekretuan aurreikusitakoa, gidari profesionalak direnean.
- b) Egitateen egilea hamazortzi urte baino gutxiagoko adingabea denean, modu solidarioan gurasoek, tutoreek, hartzailerek eta legezko edo izatezko zainketaileek erantzungo dute, hurrenkera horretan, hauei ezarritako

eginbearra ez betetzeagatik, hain zuzen ere, adingabeei egozten zaien administrazioko arau-haustea prebenitu beharra.

Erantzukizun solidarioa, ezarri den isunetik datorren diruari dagokio soil-soilik.

- c) Ibilgailua geratu ez den suposizioetan eta ibilgailuak ohiko gidari bat izendatuta badu, arau-hausteagatiko erantzukizuna beronengan eroriko da, gidaria beste bat izan dela edo ibilgailua ostu zaiola egiaztatu duen suposizioan izan ezik.
- d) Ibilgailua geratu ez den suposizioetan eta ibilgailuak ohiko gidari bat izendatuta ez badu, titularrak edo epe luzeko errentariak identifikatu duen gidaria izango da erantzulea, 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritako betebeharren arabera.
- e) Ibilgailuen epe laburreko errentarako enpresetan, ibilgailuaren errentaria izango da erantzulea. Honek adieraziko balu bera ez dela gidaria, edo pertsona juridikoa balitz, 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko 9 bis artikulua titularrarentzat ezartzen dituen betebeharrak egokituko zaizkio. Ibilgailuen salerosketa-establezimenduen edo tailer mekanikoen titularrena izango da ibilgailuekin egin diren arau-hausteagatiko erantzukizuna, bertan gordailatuta dauden bitartean.
- f) Titularrak, edo epe luzeko errentariak, Ibilgailuen Erregistroan jasota balego, ibilgailuaren dokumentazioari, aldizkako azterketei eta zaintza-egoerari buruzko arau-hausteen erantzulea izango da kasu guztietan, ibilgailuaren segurtasun baldintzei eragiten dien akatsak direnean.
- g) Titularra edo errentaria, Ibilgailuen Erregistroan jasota dagoen suposizioan, aparkatzeagatiko arau-hausteen erantzulea izango da, salbuetsita ibilgailuak ohiko gidaria izendaturik duen edo gidari bat egitatearen erantzulea dela adierazita dagoen suposizioetan.

II. KAPITULUA ARAU-HAUSTEAK

149. artikulua

Ordenantza honetan jasotako aginduen aurkako akzioak edo ez-egiteak arau-hausteak izango dira, bai eta martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren aurkako portaerak eta bere erregelamenduzko xedapenak ere; ildo beretik, zehapena ezarriko da testu horretan zehaztutako kasuetan, moduetan eta neurrian, salbu eta zigor-legeetan tipifikatutako delituak edo faltak direnean. Kasu horretan, erruduntasun-testigantza jurisdikzio-ordena eskudunari emango dio eta ez du zehapen-prozedurarekin aurrera egingo agintaritza judizialak epai irmoa ematen ez duen bitartean.

150. artikulua

Ordenantza honetan aipatu aginduak eta trafikoari buruzko legeria arruntean indarrean daudenak hausten badira, hiru arau-hauste motatan sailkatuko dira, hala nola, arinak, larriak eta oso larriak.

1. Arau-hauste arinak 100 eurorainoko isunaz zigortuko dira; larriak 200 euroko isunaz; eta oso larriak 500 euroko isunaz. Hala ere, abiaduraren mugak ez errespetatzean egindako arau-hausteak Trafikoari eta Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea onetsi zuen martxoan 2ko 339/1990 LEDko IV. Eranskinean aurreikusitako zenbatekoz zigortuko dira.

2. Aurrez xedatutakoari kalterik egin gabe, zigorrak ezartzean ondokoa izan behar da kontuan:

- a) Trafikoari eta Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea onetsi zuen martxoan 2ko 339/1990 LEDko 65.5.j) artikuluan aurreikusitako arau-hausteagatiko isuna, eragin zuen jatorrizko arau-hausterako aurreikusitakoaren bikoitza izango da, arau-hauste arina bada, eta hirukoitza, arau-hauste larria edo oso larria bada.
- b) Trafikoari eta Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea onetsi zuen martxoan 2ko 339/1990 LEDko 65.5.h) artikuluan jasotako arau-haustea 6.000 euroz zigortuko da.
- c) Trafikoari eta Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea onetsi zuen martxoan 2ko 339/1990 LEDko 65.6) artikuluan jasotako arau-hausteak 3.000 eta 20.000 euro arteko isunaz zigortuko da.

Trafikoari eta Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea onetsi zuen martxoan 2ko 339/1990 LEDko 67.1 artikuluan eta IV. Eranskinean ezarritako isunen diru-kopurua ehuneko 30 handiagotu ahal izango da, egitatearen larritasuna eta transzendentziaren arabera, arau-haustea dituen aurrekarien eta berrerorle izatearen arabera, bere buruari eta bidearen gainerako erabiltzaileei sortaraz ziezaiekeen arriskuaren arabera eta proportzionaltasun-irizpideari jarraiki.

Aurretik ezarritako graduazio-irizpideak, 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko 65.6 artikuluan aurreikusitako arau-hausteagatiko zigorrei ere ezarri beharko zaizkie.

151. artikulua

Arau-hausteen ondorioz hasitako zehapen-espeditentek diruzko zehapena, edo gidabaimena eten edo kentzeko zehapena barneratzen badute, eta portaera horren gain ezarri beharreko zehapena udal-eskumenekoa den heinean, kasuan kasuko udal-organoek horien instrukzioa egin eta ebazpena emango dute, eta, ostean, aipatu gidabaimena eten edo kentzeko zehapena aplikatzeko ondoretarako bakarrik, hori egiteko eskumena duen agintaritzari helaraziko zaio.

152. artikulua

Arau-hauste batzuen zehapena ez denean udal-eskumenekoa, trafikoaren zaintzaz eta kontrolaz arduratzen den udal-agintzaritzaren agenteek salatuko dituzte, eta, ondoren, trafikoari buruzko zehapen-espedienteen izapideak egiten dituzten organoek igorriko dizkiote administrazio eskudunari.

III. KAPITULUA ZEHAPEN-PROZEDURA

153. artikulua

Otsailaren 25ko 320/1994 Errege Dekretuaren bidez arautuko da; hori zati batean Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko zehapen-prozedura onetsi duen martxoaren 14ko 318/2004 Errege Dekretuak aldatu du. Ordezko moduan, abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretua aplikatuko da, zehapen-ahala egikaritzeko prozedura onetsi duena.

Ordenantza honetan eta trafikoari buruz indarrean dauden lege-xedapenen aginduak haustearen ondoriozko zehapenak ezartzeko eskuduna izango da Alkatetza-Lehendakaritza, eta bere eskuordetzaren bitartez, eskuordetza eman diezaiokeen zinegotzia.

154. artikulua

Udal-agintariak emandako zehapen-espedienteen ebazpenen aurka Administrazio Prozedura Erkidearen lege arautzailearen eta gai horri buruzko legeria berezi eskudunaren arabera bidezkoak diren errekurtsoak jarri ahal izango dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza hau indarrean sartu aurretik egindako arau-hausteetan ez da Ordenantza hau aplikatuko, aurreko arauak baizik.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Indargabetuta dago 1995eko maiatzaren 2ko osoko bilkuran onetsitako Udal Ordenantza, erabilerak, trafikoa, zirkulazioa eta bide-segurtasuna arautzen zituena, eta beste edozein ordenantza, erregelamendu edo udal-xedapen ere, Ordenantza honen manuen aurkakoa baldin bada.

I. ERANSKINA ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Udaltzaintzaren Buruzagitzan salaketa jaso ondoren, arau-hausteak kalifikatu eta tipifikatuko dira ondoko koadroaren arabera.

Kalifikazioa	Artikulua	Legeria:	Zigorra	Puntuak	Deskribapena
larria	9	01	200,00 euro.	4	Seinaleei eta Agenteen aginduei kasu ez egitea
arina	10	01	100€ arte.		Zirkulazioa bidegabeki oztopatzea.
larria	10	01	200,00 euro.		Pertsonei arriskua sortaraziz jokatzeari.
larria	11	01	200,00 euro.	4	Bidera edo inguruetara suteak edo istripuak eragin, edo eroso zirkulatzeari oztopa dezaketen objektuak botatzea.
arina	12	01	100€ arte.		Trafiko seinaleetan kalteak eragin eta ahalik eta arinen Udal Agintaritzari ez jakinaraztea.
arina	13	01	100€ arte.		Zirkulatzeari gurrupiletatik eta/edo zamatik lur edo hauts ugari botatzea.

arina	13	01	100€ arte.		Ibilgailuek zikindutako bide publikoa ez garbitzea.
arina	14	01	100€ arte.		Ibilgailuetan publizitate-xedeekin bozgorailuak erabiltzea, baimenik gabe.
arina	15	01	100€ arte.		Ibilgailuen seinale akustikoak erabiltzea, justifikatutako arrazoirik duenean izan ezik.
arina	16	01	100€ arte.		Lehentasunezkoak ez diren ibilgailuetan larrialdi-seinaleak erabiltzea justifikaziorik gabe.
arina	17	01	100€ arte.		Modu bortitzean azeleratzeagatik, ihes-hodiak aldatuta edo hondatuta izateagatik edo bestelako inguruabar bereziengatik gehiegizko zaratak edo keak eragitea.
arina	17	01	100€ arte.		Ke-hodi libre izenekoarekin zirkulatzea.
larria	18.1	01	200,00 euro.	3	Gidatzean kaskoak eta aurikularrak erabiltzea soinua hartu edo entzunarazteko aparatuetara konektatuta.
larria	18.2	01	200,00 euro.	3	Telefono mugikorra erabiliz gidatzea, esku librekoa erabili gabe.
larria	21	01	200,00 euro.		Ibilgetuta geratzeko arriskuarekin bidegurutzeetan, elkarguneetan eta errei erreserbatuetan sartzea, zeharkako zirkulazioa oztopatuz.
arina	22	01	100€ arte.		Baimendutako oinezkoen inguruetan, espaloirik gabeko galtzadetan edo oinezko asko dagoen gainerako lekuetan abiadura ez moteltzea.
larria	23	01	200,00 euro.		Oinezkoen istripuak edo trabak saihesteko behar besteko arreta-neurriak hartu gabe gidatzea.
arina	25	01	100€ arte.		Oinezkoek galtzada horretarako bereziki gaitutako lekuetatik ez gurutzatzea.
arina	26	01	100€ arte.		Galtzadatik edo espaloietatik patinekin, monopatinekin edo antzeko kategoria duten tresnekin zirkulatzea.
arina	27	01	100€ arte.		Bide publikotik abereak aske edo taldean edo animaliek tiratutako ibilgailua gidatzea.
Oso larria	29	01	3000 eta 20000 euro artean		Bide bateko seinaleak hondatzea.
arina	30	01	100€ arte.		Bide publikoan seinaleak ipintzea Udalaren baimenik gabe.
arina	32	01	100€ arte.		Erabiltzaileen ikusmena zaildu edo mugatu edo erabiltzaileen arreta galarazi dezaketen objektuak, instalazioak edo publizitatea jartzea.
arina	41.a	01	100€ arte.		Debekatutako lekuan gelditzea, berariazko seinaleaz adierazita dagoenean.
larria	41.b	01	200,00 euro.		Bihurguneetan edo ikuspen urriko sestra-aldaketetan gelditzea.
larria	41.b	01	200,00 euro.		Ibilgailua zubietan, gaineko pasabideetan edo horien azpian eta tuneletan gelditzea.
larria	41.c	01	200,00 euro.		Trenbide-pasaguneetan gelditzea.
arina	41.c	01	100€ arte.		Txirrindularien pasabideetan eta oinezkoen pasabideetan gelditzea.
arina	41.d	01	100€ arte.		Erabiltzaile jakin batzuentzat erreserbatutako erreietan gelditzea.
larria	41.e	01	200,00 euro.		Elkarguneetan edo horien inguruetan gelditzea.
arina	41.f	01	100€ arte.		Trafiko-seinaleak ikustea oztopatu daitekeen lekuetan gelditzea.
larria	41.g	01	200,00 euro.		Ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioa modu larrian oztopatuz edo asaldaturik gelditzea.
arina	41.h	01	100€ arte.		Martxaren aurkako noranzkoan gelditzea.

larria	49.i	01	200,00 euro.		Babesguneen, irlatxoen, erdibitzaileen, babes-guneen eta trafikoa bideratzeko gaineko osagaien gainean gelditzea.
arina	41.j	01	100€ arte.		Lorategien, parterreen eta antzekoen gainean gelditzea.
arina	43	01	100€ arte.		Gidaria ez dagoenean ibilgailua ez mugitzeko behar besteko neurriak hartu gabe aparkatzea.
arina	44	01	100€ arte.		Espazioa gaizki erabiliz edo adierazitako perimetrotik kanpo aparkatzea.
arina	44	01	100€ arte.		Espaloiaren ertzaren eta gurpilaren artean gutxienez 20 zentimetroko tartea utzi gabe aparkatzea.
arina	44	01	100€ arte.		Espaloiarik gabeko kaleetan fatxadatik metro batera baino gutxiagora aparkatzea.
arina	45.1	01	100€ arte.		Bide publikoan atoiak eta karabanak aparkatzea ibilgailu traktorerik gabe.
arina	45.1	01	100€ arte.		Bide publikoan autobusak, traktoreak edo 3.500 kilogramo baino PMA handiagoa duten ibilgailuak aparkatzea.
arina	45.2	01	100€ arte.		Autokarabanak eta ibilgailu traktorea duten karabanak ondoz ondoko bi egunetan baino gehiagotan bide publikoan aparkatzea.
arina	49.1.a	01	100€ arte.		Seinale berezien bidez debekatutako lekuetan aparkatzea.
larria	49.1.a	01	200,00 euro.		Seinale berezien bidez debekatutako lekuetan aparkatzea, zirkulazioa modu larrian oztopatuz.
arina	49.1.b	01	100€ arte.		“Gelditzea debekatuta” seinalea duten lekuetan aparkatzea.
larria	49.1.b	01	200,00 euro.		Bihurguneetan edo sestra-aldaketetan aparkatzea.
larria	49.1.b	01	200,00 euro.		Ibilgailua zubietan, gaineko pasabideetan edo horien azpian eta tuneletan aparkatzea.
arina	49.1.b	01	100€ arte.		Txirrindularien pasabideetan aparkatzea.
arina	49.1.b	01	100€ arte.		Erabiltzaile jakin batzuentzat erreserbatutako erreietan aparkatzea.
larria	49.1.b	01	200,00 euro.		Elkarguneetan edo horien inguruetan aparkatzea.
arina	49.1.b	01	100€ arte.		Trafiko-seinaleak ikustea oztopatu daitekeen lekuetan aparkatzea.
larria	49.1.b	01	200,00 euro.		Ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioa modu larrian oztopatuz edo trabatuz aparkatzea.
arina	49.1.b	01	100€ arte.		Martxaren aurkako noranzkoan aparkatzea.
larria	49.1.b	01	200,00 euro.		Babesguneen, irlatxoen, erdibitzaileen, babes-guneen eta trafikoa bideratzeko gaineko osagaien gainean aparkatzea.
arina	49.1.b	01	100€ arte.		Lorategien, parterreen eta antzekoen gainean aparkatzea.
arina	49.1.c	01	100€ arte.		Zamalanetarako erreserbatutako lekuan aparkatzea.
larria	49.1.d	01	200,00 euro.		Elbarrientzat erreserbatutako lekuan aparkatzea.
arina	49.1.e	01	100€ arte.		Oinezkoen pasabidean aparkatzea.
arina	49.1.f	01	100€ arte.		Espaloiaren gainean eta oinezkoen inguruetan aparkatzea.
larria	49.1.f	01	200,00 euro.		Espaloiaren gainean eta oinezkoen inguruetan aparkatzea, oinezkoei, haurren orgatxoei, elbarrien aulkiei edo antzekoei enbarazu eginez.
arina	49.1.g	01	100€ arte.		“Pasabide” seinaleak dituzten inguruetan aparkatzea.
larria	49.1.g	01	200,00 euro.		“Pasabide” seinaleak dituzten inguruetan aparkatzea, sarrera eta irteera oztopatuz.

larria	49.1.i	01	200,00 euro.		"Bus" geralekuan aparkatzea.
larria	49.1.j	01	200,00 euro.		Arauz aparkatuta dauden beste ibilgailu batzuen irteera oztopatuz aparkatzea.
arina	49.1.k	01	100€ arte.		Garbiketako udal-zerbitzuko edukiontzien aurrean edo horien bilketa oztopatuz aparkatzea.
larria	49.1.k	01	200,00 euro.		Garbiketako udal-zerbitzuko edukiontziak biltzea galaraziz aparkatzea.
larria	49.1.l	01	200,00 euro.		Larrialdi-zerbitzuko ibilgailuentzat erreserbatutako lekuan aparkatzea.
larria	49.1.l	01	200,00 euro.		Polizia-ibilgailuentzat erreserbatutako lekuetan aparkatzea.
arina	49.1.m	01	100€ arte.		Ibilgailu berezientzat erreserbatutako lekuetan aparkatzea.
arina	49.1.n	01	100€ arte.		Ibilgailua bertan behera utzita egotearen itxurarekin aparkatuta izatea.
arina	49.1.ñ	01	100€ arte.		Ibilgailua leku berean ondoko ondoko 7 egun baliodun baino gehiagotan aparkatuta izatea.
arina	49.2	01	100€ arte.		Asteko azokaren lekuan goizeko 06:00etatik 16:00etara aparkatzea.
arina	50.1	01	100€ arte.		Bizikletak ibilgailuen trafikoa mugatuta dagoen inguruetan aparkatzea.
arina	50.1	01	100€ arte.		Ziklomotorrak ibilgailuen trafikoa mugatuta dagoen inguruetan aparkatzea.
arina	50.1	01	100€ arte.		Motozikletak ibilgailuen trafikoa mugatuta dagoen inguruetan aparkatzea.
arina	50.2	01	100€ arte.		Bizikletarekin mugatutako ingurura oinez ez sartzea, aulkian eserita baino.
arina	50.2	01	100€ arte.		Ziklomotorrarekin mugatutako ingurura aulkian eseri gabe eta motorra itzalita ez sartzea.
arina	51	01	100€ arte.		Ziklomotorrak eta motozikletak baterian ez aparkatzea, edo zabaleran 1,5 metro baino gehiago hartzea.
arina	52	01	100€ arte.		Urritu fisikoen txartelen titularrek salbuetsitako lekuetan aparkatzea.
arina	52	01	100€ arte.		Urritu fisikoen txartelen titularrek larrialdi-irteeretan edo zirkulazio-errei bat murrizten duten espazioetan aparkatzea.
arina	53	01	100€ arte.		Autobusak modu eskusiboan bidaiariak hartzeko eta uzteko erreserbatuta dauden geralekuetan aparkatzea.
larria	53	01	200,00 euro.		Autobusak modu eskusiboan bidaiariak hartzeko eta uzteko erreserbatuta dauden geralekuetan aparkatzea, oztopatuz.
arina	55	01	100€ arte.		Txartela izanda, elbarrien aparkatze-erreserba behin eta berriro erabiltzea horretarako beren beregi baimenik izan gabe.
arina	56	01	100€ arte.		Elbarrien txartela erabiltzea horretarako gaituta egon gabe eta txartelaren titularra izan gabe.
arina	58	01	100€ arte.		Elbarrien txartela erabiltzeko baimena duten aparkalekuetan ordubeteko gehieneko denbora gainditzea.
arina	59	01	100€ arte.		Motordun ibilgailuarekin oinezkoen inguruetatik zirkulatzea, baimenduta ez badago.
larria	61	01	200,00 euro.		Oinezkoen inguru batetik zirkulatzeko behar besteko neurriak ez hartzea edo 20 km/h-ko abiadura gainditzea.
larria	61	01	200,00 euro.	4	Oinezkoen erreserbatutako lekuetan oinezkoen lehentasuna ez ematea.
arina	63.1	01	100€ arte.		Larrialdietako ibilgailuak oinezkoen ingurutik

					zirkulatzea, mota horretako zerbitzua egiten ari ez direnean.
arina	63.1	01	100€ arte.		Zerbitzu publikoko ibilgailuak oinezkoen ingurutik zirkulatzea, mota horretako zerbitzua egiten ari ez direnean.
arina	63.1	01	100€ arte.		Larrialdiko ibilgailuak oinezkoen inguruan aparkatzea, mota horretako zerbitzua egiten ari ez direnean.
arina	63.1	01	100€ arte.		Larrialdiko ibilgailuak oinezkoen inguruan aparkatzea, mota horretako zerbitzua egiten ari ez direnean.
arina	66	01	100€ arte.		Automobilak edo motozikletak bizikleten erabilera eskusiborako bidegorritik zirkulatzea.
larria	66	01	200,00 euro.		Automobilak edo motozikletak bizikleten erabilera eskusiborako bidegorritik zirkulatzea, bide horretako erabiltzaileei arriskua eraginda.
arina	66	01	100€ arte.		Automobilak edo motozikletak bizikleten erabilera eskusiborako bidegorrian aparkatzea.
arina	66	01	100€ arte.		Ziklomotorrak bizikleten erabilera eskusiborako bidegorritik zirkulatzea.
larria	66	01	200,00 euro.		Ziklomotorrak bizikleten erabilera eskusiborako bidegorritik zirkulatzea, bide horretako erabiltzaileei arriskua eraginda.
arina	66	01	100€ arte.		Ziklomotorrak bizikleten erabilera eskusiborako bidegorrian aparkatzea.
arina	67	01	100€ arte.		Oinezkoak bidegorria zeharkatzea horretarako adierazitako tokia ez den batetik.
arina	68	01	100€ arte.		Bizikletarekin bidegorriaren barruan dagoen oinezkoen ingurutik edo parke publikotik zirkulatzean behar besteko arreta ez izatea.
arina	71	01	100€ arte.		Bide publikoan ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioa zailtzen duten oztopoak edo objektuak ipintzea.
larria	71	01	200,00 euro.		Bide publikoan ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioa modu larrian zailtzen duten oztopoak edo objektuak ipintzea.
arina	71	01	100€ arte.		Bide publikoan trafiko-seinaleak ikustea zailtzen duten oztopoak edo objektuak ipintzea.
larria	71	01	200,00 euro.		Bide publikoan oztopoak edo objektuak ipintzea, arriskua ohartarazten duten trafiko-seinaleak ikusteari traba egiten badiote.
larria	72	01	200,00 euro.		Bide publikoan oztopoak kokatzea beharrezko babes-neurririk eta egunez edo gauez seinale egokirik jarri gabe.
arina	73	01	100€ arte.		Okupatzeko baimena duen ingurua osasun-eta higiene-egoera onean ez izatea.
larria	73	01	200,00 euro.		Okupazioaren edo garatutako jardueraren ondorioz zoladura eta/edo eragindako hondamenak ez konpontzea.
arina	77	01	100€ arte.		Aldez aurreko baimenik izan gabe zamatanak egitea 00:00etatik 7:00etara.
arina	79	01	100€ arte.		Zamatanak eginkizunak arintzeko beharrezko bitartekoak erabili gabe edo beharrezkoak ez diren zarata edo trabak eraginez egitea.
arina	79	01	100€ arte.		Baimendutako ibilgailua zamatanetarako erreserbatutako inguruan aparkatzea, jarduerarik egin gabe, 15 minututan baino gehiagotan.
arina	81	01	100€ arte.		Zamatanak egiteko objektuak zoruan uztea, higiezinetik ibilgailura edo alderantziz

					zuzenean eraman gabe.
larria	82	01	200,00 euro.		Zamalanak seinaleekin behar den moduan ez adieraztea, eta pertsonen osotasunerako edo ondasunetan kalteak egiteko arriskua egotea.
arina	83	01	100€ arte.		Bide publikoan edukiontzia, mahaitxoak, kioskoak, salmahaiak, salmenta-postuak, dirua biltzeko mahaiak edo bestelako oztopoak jartzea aurretiaz udalaren baimena izan gabe.
larria	83	01	200,00 euro.		Bide publikoan edukiontzia, mahaitxoak, kioskoak, salmahaiak, salmenta-postuak, dirua biltzeko mahaiak edo bestelako oztopoak jartzea, egunez edo gauez seinale egokia jarri gabe.
Oso larria	84	01	3.000 euro.		Bide publikoan obrak egitea, aldeztu aurretik udalaren baimena izan gabe.
larria	84	01	200,00 euro.		Bide publikoan obrak egitea erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko babes-neurriak eta egunez edo gauez seinale egokiak erabili gabe.
larria	86	01	200,00 euro.		Zirkulazioa erregulatzeko langileak seinale eta guzti egotea, egoerak egokitzat jotzen duenean.
larria	87	01	200,00 euro.		Seinaleak, balizak edo babesak beharrezkoak ez direnean kentzea.
arina	88	01	100€ arte.		Edukiontzia bide publikoan kokatzea, udalaren baimenik izan gabe.
arina	90	01	100€ arte.		Bide publikoan edukiontzia kokatzea jabearen izenik eta telefono-zenbakirik gabe.
arina	90	01	100€ arte.		Edukiontzia laneko orduetatik kanpo edo lekualdatzean instalita ez egotea.
arina	95.2	01	100€ arte.		Kirol-jarduera, kultura-jarduera, jaietako edo antzeko egiteko jarritako edozein instalazio, ekintza amaituta berehala ez kentzea.
arina	101	01	100€ arte.		Bide publikoan makina gai-banatzailak edo olgeta-tresnak ipintzea udalaren baimenik gabe.
arina	102.1	01	100€ arte.		Erabilera publikoa duten bide, kale edo plazetan jokoak edo jolasak egitea eta trabak eragitea.
larria	102.1	01	200,00 euro.		Erabilera publikoa duten bide, kale edo plazetan jokoak edo jolasak egitea eta arriskua eragitea.
arina	103	01	100€ arte.		Oinezkoen joan-etorrian trabak sortu edo arriskua eragiten duten pertsona-bilerak edo taldeak egitea.
arina	104	01	100€ arte.		Bide publikoan merkaturgai arriskutsuak garraiatzeko ibilgailua geldirik egotea, zamarik gabe.
larria	104	01	200,00 euro.		Bide publikoan merkaturgai arriskutsuak garraiatzeko ibilgailua geldirik egotea, zamarekin.
arina	105	01	100€ arte.		Bide publikoan ibilgailua garbitu, atondu edo mantentze-konponketak egitea.
arina	108	01	100€ arte.		Bizikletak bidegorritik ez zirkulatzea, eta halakorik egon ezean galtzadatik zirkulatzea, baina ez eskuineko aldetik albat hurbilen.
arina	109	01	100€ arte.		Txirrindulariak buru-babesa ez erabiltzea.
arina	110.1	01	100€ arte.		Txirrindulariek herri barruko bidean paraleloan zirkulatzea.
arina	111	01	100€ arte.		Txirrindularia galtzadan gurpil bakarra jarrita ibiltzen hastea edo horrela zirkulatzea.
arina	111	01	100€ arte.		Ziklomotor-gidaria galtzadan gurpil bakarra jarrita ibiltzen hastea edo horrela zirkulatzea.

arina	111	01	100€ arte.		Motozikleta-gidaria galtzadan gurpil bakarra jarrita ibiltzen hastea edo horrela zirkulatzea.
arina	111	01	100€ arte.		Ziklomotorren, bizikleten, patinen, monopativen edo antzeko gailuen erabiltzaileak ibilgailuetatik oratzea aurrera egiteko.
Oso larria	112	01	500,00 euro.		Probintziako Trafikoko Buruzagitzan matrikulatu gabeko ziklomotorrarekin zirkulatzea.
larria	113	01	200,00 euro.		Ziklomotorrarekin edo motozikletarekin zirkulatzea argiak piztu gabe.
larria	114	01	200,00 euro.	3	Motozikletan edo ziklomotorrean zirkulatzea buru-babes homologatua eraman gabe.
arina	115.1	01	100€ arte.		Herri barruko bidean 12 tonako PMA edo handiagoa duen kamioiarekin zirkulatzea.
larria	115.2	01	200,00 euro.		Udalerriko landa-bideetan, alde zurreko baimenik gabe, 7,5 tona edo gehiago eta 25 tona baino gutxiago pisatzen duten kamioiekin gidatzea.
larria	115.2	01	200,00 euro.		Landa-bideetan 25 tona baino gehiago pisatzen duten kamioiekin zirkulatzea.
arina	116.1	01	100€ arte.		Zamalanak 00:00etatik 07:00etara egitea, baimenik eta arrazoi justifikaturik gabe.
arina	116.2	01	100€ arte.		7,5 tonako PMA baino handiagoa duten ibilgailuekin zamalanak egitea, beren beregi baimenik izan gabe.
arina	120	01	100€ arte.		Eskola-umeak garraiatzeko ibilgailuek umeak horretarako ezarritako geralekuetatik kanpo utzi eta jasotzea.
arina	122	01	100€ arte.		Eskola-umeak garraiatzeko ibilgailuak bidaiariak hartu edo uzteko behar den denbora baino gehiago egotea.
arina	131	01	100€ arte.		Garraio-zerbitzu publikoak behar den denbora baino gehiago egotea.
arina	132	01	100€ arte.		Auto-taxi ibilgailua taxi-zerbitzuarentzat ezarritako geralekuan aparkatzea.
arina	143.2	01	100€ arte.		Bide publikoan bertan behera utzitako ibilgailua ez kentzea.
Oso larria	65.5	02	Jatorrizko arau-hausterako aurreikusitako zigorraren bikoitza arina bada eta larria edo oso larria bada hirukoitza		Gidariari buruzko daturik ez ematea, jabeari hala egiteko eskatuz gero.
larria	84	02	200,00 euro.		Ibilgailua ibilgetzeko agindua urratzea.
larria	9.2	02	200,00 euro.		Norberaren buruari edo beste bati kaltea saihesteko behar besteko arretaz ez gidatzea.
larria	65.4	02	200,00 euro.		Zabarkeriaz gidatzea.
Oso larria	65.5	02	500,00 euro.	6	Ausarkeriaz gidatzea.
arina	9.1	03	100€ arte.		Baimendutako plazak baino pertsona gehiago eramatea.
larria	9.1	03	200,00 euro.		Baimendutako plazak %50 gaintzea, gidaria alde batera utzita.
larria	65.4	02	200,00 euro.	3	Aurreko eserlekuetan 12 urtetik beherakoak eramatea, horretarako homologatutako gailurik gabe.
arina	12.1	03	100€ arte.		Bizikletan edo ziklomotorrean bidaiariak eramatea, horretarako homologatuta egon ez arren.
arina	12.2	03	100€ arte.		Motozikletetan bidaiari gehiegi eramatea.
arina	12.2	03	100€ arte.		Bidaiaria gidariaren eta eskulekuaren artean

					kokatzea motozikleta eta ziklotomotorretan.
larria	14.1.a	03	200,00 euro.		Zama modu partzialean edo osorik erori edo herrestan eramatea, behar den moduan ez lotzeagatik.
arina	15.6	03	100€ arte.		Zamaren zati irtenean arauzko seinaleak ez ipintzea gauzez edo egunez.
arina	18.2	03	100€ arte.		Homologatu gabeko beira tindatuak edo koloredunak jartzea.
Oso larria	21	03	500,00 euro.	6	Alkoholemia-neurketa egiteari uko egitea.
Oso larria	30.2	03	500,00 euro.	6	Ezkerraldeetik aurkako noranzkoan zirkulatzea.
arina	52.2	03	100€ arte.		Abiadura-muga begi-bistan ez eramatea horretarako betebeharra duten ibilgailuek.
Oso larria	55.2	03	500,00 euro.	6	Abiadura-lehiaketak antolatzea bide publikoan.
larria	56.2	03	200,00 euro.	4	Agenteak araututako elkargunean ez geratzea horrek agintzen duenean.
larria	56.3	03	200,00 euro.	4	Semaforoak araututako elkargunean ez geratzea horrek hala adierazten duenean.
larria	56.5	03	200,00 euro.	4	"Pasatzen utzi" seinalea agertzen den elkargunean pasatzen ez uztea.
larria	56.5	03	200,00 euro.	4	"Stop" seinalea agertzen den elkargunean geratuz pasatzen ez uztea.
larria	57.1	03	200,00 euro.		Seinalerik ez dagoen elkargunean eskuinaldeetik datozen ibilgailuei pasatzen ez uztea.
larria	65.1.a	03	200,00 euro.	4	Behar bezala seinaleztatutako oinezkoen pasabideetan horien lehentasuna ez errespetatzea.
larria	67.1	03	200,00 euro.	4	Zerbitzuan dagoen larrialdietarako ibilgailuari lehentasunik ez ematea.
arina	71.4	03	100€ arte.		Obretako edo zerbitzuetako ibilgailuek argi-seinalerik ez erabiltzea.
larria	79.1	03	200,00 euro.	3	Baimendu gabeko tunelean, trenbide-pasabidean edo tokian itzulbidea egitea.
larria	80.2	03	200,00 euro.		Atzerako martxan zirkulatzea justifikatu gabeko arrazoirik izan gabe edo 15 metro baino gehiago.
larria	80.2	03	200,00 euro.		Atzerako martxan zirkulatzea pasabidean sartuz.
larria	36.1	03	200,00 euro.	4	Ikuspen urriko sestra-aldaketan edo – bihurgunean aurreratzea.
larria	36.2	03	200,00 euro.	4	Seinaleztatutako oinezkoen pasabideetan eta trenbide-pasabideetan aurreratzea.
arina	90.1	03	100€ arte.		Bazterbidean aparkatzea.
larria	90.1	03	200,00 euro.		Bazterbidean aparkatzea zirkulazioa larriki oztopatuz edo, bereziki oinezkoentzat, arriskutsua denean.
arina	92.2	03	100€ arte.		Ilaran aparkatzea bide-marrekin zehaztuta dagoen baterian aparkatzeko esparruan.
larria	98	03	200,00 euro.		Argi-seinalerik gabe zirkulatzea 330/90 Errege Dekretuaren 42. artikulua arabera.
larria	103	03	200,00 euro.		Matrikula-plaka argi-seinalerik gabe eramatea hori nahitaezkoa denean.
larria	117	03	200,00 euro.	3	Gidariak edo bidaiariak segurtasun-uhala ez erabiltzea.
arina	124.1.a	03	100€ arte.		Oinezkoek eurei zuzendutako semaforo-seinaleak ez betetzea.
larria	124.1.b	03	200,00 euro.		Oinezkoek galtzada gurutzatzea agenteen aginduak ez betez.
arina	124.2	03	100€ arte.		Oinezkoek galtzada gurutzatzea pasabidetik kanpo oztopatze bidegaberik gabe egin dezaketela ziurtatu gabe.
larria	129.2.b	03	200,00 euro.		Istripuan parte-hartzea eta agintari edo

					agenteekin lankidetzan ez jardutea.
larria	65.4	02	200,00 euro.	4	Semaforoen seinaleak ez errespetatzea.
arina	152	03	100€ arte.		Sarrera debekatuta seinalea ez errespetatzea.
larria	152	03	200,00 euro.		"Betebeharra" seinalea ez errespetatzea, arriskuarekin.
arina	153	03	100€ arte.		"Murriztapena edo debekua" seinalea ez errespetatzea.
larria	154	03	200,00 euro.		"Murriztapena edo debekua" seinalea ez errespetatzea, arriskuarekin.
arina	155	03	100€ arte.		"Betebeharra" seinalea ez errespetatzea.
larria	155	03	200,00 euro.		"Betebeharra" seinalea ez errespetatzea, arriskuarekin.
arina	167	03	100€ arte.		Luzetarako marra zuri etengabeak edo etenak ez errespetatzea.
arina	170	03	100€ arte.		Beste bideko marra zuriak ez errespetatzea.
arina	171	03	100€ arte.		"Sigi-Saga"n ageri diren marra horietan aparkatzea.
arina	173	03	100€ arte.		Gidari hasiberriak arauzko "L" ez eramatea (V-13).
larria	11.2	04	200,00 euro.		Arauz galdatutako atzerako ispilua ez izatea.
larria	21.1	04	200,00 euro.		Ziklomotorrak arauz galdatutako atzerako ispilua ez izatea.
larria	25.1	04	200,00 euro.		Ibilgailuak matrikula-plakak ez eramatea.
arina	26.1	04	100€ arte.		Gidariak ez erakustea agenteen aurrean zirkulazio-baimena, azterketa teknikoaren txartela, zirkulazio-lizentzia edo ezaugarri teknikoaren ziurtagiria (azken 2 kasuak, ziklomotorren kasuan).
Oso larria	20.1	03	500,00 euro.	4	Ibilgailua zein bizikleta gidatzea odoleko alkohol-mailaren tasa 0,5 gramo baino handiagoarekin, edo botatako arnasan antzemandako alkohol-mailaren tasa litro bakoitzeko 0,25 miligramo baino handiagoarekin
Oso larria	20.1	03	500,00 euro.	4	Ibilgailua gidatzea 3.500 PMA handiagoa duten merkatugaien garraiorea zuzendutakoak. Bederatzi plazatik gorako bidaiarien garraiorakoak. Zerbitzu publikoetakoak edo eskolako garraiorako edo adingabeen garraiorakoak. Merkatugai arriskutsuak eramatekoak edo larrialdietarako zerbitzukoak edo garraio berezikoak. Odoleko alkohol-mailaren tasa 0,3 gramo baino handiagorekin litro bakoitzeko, edo botatako arnasan antzemandako alkohol-mailaren tasa 0,15 miligramo baino handiagorekin.
Oso larria	20.1	03	500,00 euro.	4	Ibilgailua gidatzea odoleko alkohol-mailaren tasa litro bakoitzeko 0,3 gramo baino handiagoarekin, edo botatako arnasan antzemandako alkohol-mailaren tasa litro bakoitzeko 0,15 miligramo baino handiagoarekin, gidatzeko gaitasuna ematen dien baimena edo lizentzia lortu ondoko bi urteetan zehar.
Oso larria	65.5	02	500,00 euro.	6	Ibilgailua gidatzea sorgogarrri, psikotropiko, estimulagarri eta bestelako antzeko sustantzien ondoriopean.

GEHIEGIZKO ABIADURAGATIKO ZIGORREN ZENBATEKOA:

Muga		30	40	50	60	70	80	90	100	110	120	Isuna	Puntuak
	LARRIA	31	41	51	61	71	81	91	101	111	121	100	
		50	60	70	90	100	110	120	130	140	150		
		51	61	71	91	101	111	121	131	141	151	300	2
		60	70	80	110	120	130	140	150	160	170		
		61	71	81	111	121	131	141	151	161	171	400	4
	70	80	90	120	130	140	150	160	170	180			
		71	81	91	121	131	141	151	161	171	181	500	6
		80	90	100	130	140	150	160	170	180	190		
	OSO LARRIA	81	91	101	131	141	151	161	171	181	191	600	6

Legeriako kodeei dagokienez:

- 01 Galdakaoko Zirkulazioko Udal Ordenantza
- 02 339/1990 LED. Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatua.
- 03 1428/2003 ED. Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra.
- 04 2822/1988 ED. Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra.